



LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURAREN MEMORIA LABURRA, KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN KONTROL EKONOMIKO ETA NORMATIBORAKO NAHITAEZKO TXOSTENA JASO ONDOREN

(Espedientea: DNCG_LEGEA_59636/21_84)

1. SARRERA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (aurrerantzean, eLankidetzaren), ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bidez sortua, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta garapenerako lankidetzaren politikaren plangintza egiteaz eta politika hori koordinatu, kudeatu eta gauzatzeko arduratzen da, pobreziaren aurka borrokatzeko eta herrialde pobretuetan giza garapen jasagarria sustatzeko. Testuinguru horretan, eLankidetzaren da Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen lege-esparru berria lantzeko prozesuaren sustatzailea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 12. artikuluan 2. atalean xedatutakoa betetzeko egin da txosten hau. Bertan jaso dira aurrekariak, egindako izapideak eta haien emaitza, egin diren txostenetan jasotako oharretara eta iradokizunetara egokitzeko proiektuaren testuan egindako aldaketak, eta, bereziki, nahitaezko txostenetan jasotakoak. Behar bezala justifikatuko dira txosten horietan jasotako oharrek ez onartzeko arrazoiak, bai eta azkenean onartuko den testua ordenamendu juridikoari egokitzen zaiola ere.

Honako atal hauek ditu txosten honek:

1. Sarrera.
2. Lege-aurreproiektuaren instrukzio-fasea, orain arte egindako izapideak azaltzen dituenak.
3. Instrukzio-fasean egindako ekarpenak eta alegazioak aztertzea. Beharreko azalpenak eman dira aurreproiektuaren testuan sartutako aldaketa orokorrei buruz, eta onartu ez diren aldaketak justifikatu dira.
4. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekarpenak aztertzea. Beharreko azalpenak eman dira aurreproiektuaren testuan sartutako aldaketa orokorrei buruz, eta onartu ez diren aldaketak justifikatu dira.
5. Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordeak aztertzea. Beharreko azalpenak eman dira aurreproiektuaren testuan sartutako aldaketa orokorrei buruz, eta onartu ez diren aldaketak justifikatu dira.



6. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Kontrol Ekonomiko eta Normatiborako nahitaezko txostenaren ekarpenak aztertzea. Beharreko azalpenak eman dira aurreproiektuaren testuan sartutako aldaketa orokorreari buruz, eta onartu ez diren aldaketak justifikatu dira.
7. Ondorioa. Hurrengo tramiteen azalpena.
8. Eranskinak.
 - I. Aurreproiektuaren instrukzio-fasean jasotako txostenak eta alegazioak.
 - II. Parte hartzeko eta beste administrazio batzuei kontsulta egiteko izapide-faseetan eta jendaurreko informazioaren izapidean jasotako ekarpen espezifikoak baloratzea.
 - III. Agustín García Uretak, EHUko Administrazio Zuzenbideko katedradunak, egindako azterketa juridikoa (eskumen-oharrak, etab.).

2. LEGE-AURREPROIEKTUAREN INSTRUKZIO-FASEA

Egungo arau-esparrua nazioarteko garapen-agendetara eta Euskal Autonomia Erkidegoak bultzatutako lankidetzarako eta elkartasunerako politiken bilakaerara egokitzeko, honako izapide hauek egin dira:

1.- Araudi berria egiteko prozedura hasi da. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko azaroaren 15eko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Garapenerako Lankidetzaren Legearen aurreproiektua lantzeko prozedurari.

2.- Aurretiko kontsulta publikoa egin zen 2021eko azaroaren 17tik abenduaren 16ra. Etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen pertsonen eta erakundeen iritzia jasotzeko, Irekia entzute aktiborako atariaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taularen bidez egin zen izapidea.

3.- Aurreproiektua alde aurretik onartu zen. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko maiatzaren 10eko Aginduaren bidez, alde aurretik onartu zen Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua.

4.- Maiatzaren 13an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa jaso zen, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikuluan xedaturikoaren arabera. Txosten horretan adierazi zen euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak desberdinak zirela 16.3 artikuluari (laguntzak eta dirulaguntzak) zegokionez. Hori zela eta, soilik kontu hori zuzendu zen eta aurreproiektuaren bigarren bertsioa egin zen. Bigarren bertsio horri buruzko irizpena emango da, hain zuen, jarraian deskribatuko diren izapideetan.

5.- Parte hartzeko eta beste administrazio batzuei kontsulta egiteko izapidea. Hasteko aginduan aurreikusitako nahitaezko txostenak bildu ziren.

1. **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena**, arauak generoaren arabera izango duen eraginaren ebaluazioari buruzkoa, Emakumeen

eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan xedaturikoaren arabera. Egokitzat hartutako oharrak egin eta aldeko irizpena eman zen txosten horretan.

2. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako **Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena**, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2.l) artikuluan xedaturikoaren arabera, eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan xedaturikoaren arabera. Egokitzat hartutako oharrak egin eta aldeko irizpena eman zen txosten horretan.
3. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Sailburuordetzako **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena**, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.a) artikuluan eta sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera. Egokitzat hartutako oharrak egin eta aldeko irizpena eman zen txosten horretan.
4. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako **Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena**, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera. Egokitzat hartutako oharrak egin eta aldeko irizpena eman zen txosten horretan.
5. **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren txostena** (aurrerantzean, GLEKren txostena), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua arautzen duen irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 2.2 a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Egokitzat hartutako oharrak egin eta aldeko irizpena eman zen txosten horretan.
6. **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena**, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean esleitzen zaizkion eskumenetan oinarrituta. Egokitzat hartutako oharrak egin eta aldeko irizpena eman zen txosten horretan.

Horrez gain, honako ekarpen hauek jaso ziren:

7. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik egingo.
8. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik egingo.
9. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik egingo.
10. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik egingo.

11. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik egingo.
12. Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik egingo.
13. Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bi txosten egin zituen, bata eskumenen azterketari buruzkoa eta bestea alegazio teknikoari buruzkoa.
14. Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzarako eta Aniztasunerako Zuzendaritza Nagusiak txostena egin zuen, alegazioekin.
15. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentuak txostena egin zuen, alegazioekin.
16. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiko Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzak txostena egin zuen, alegazioekin.
17. Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeak txostena egin zuen, alegazioekin (2022ko irailaren 28ko bilkuran onartua).
18. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak txostena egin zuen, alegazioekin.

6.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua (2022ko maiatzaren 25eko EHAA, 100. zk.). 2022ko maiatzaren 26tik uztailaren 22ra bitartean, honako alegazio hauek jaso ziren:

19. SEADen Lagunen Elkarteak;
20. Euskadiko GGKEen Koordinakundea;
21. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Genero Taldea;
22. Mundu Bakean elkarteak (Euskadiko GGKEen Koordinakundearen alegazio berdina);
23. Bilboko Elizbarrutiko Caritas Elkarteak (Euskadiko GGKEen Koordinakundearen alegazio berdina);
24. Mugen Gainetik elkarteak (Euskadiko GGKEen Koordinakundearen alegazio berdina);
25. REAS Euskadi elkarteak;
26. Mugarik Gabe, GGKE (Euskadiko GGKEen Koordinakundearen alegazio berdina);
27. Pertsona fisikoa (REAS Euskadiren alegazio berdina);
28. UNICEF Euskadi Fundazioa;
29. Observatorio Vasco LGTBI+ / Euskal LGTBI+ Behatokia;
30. Pertsona fisikoa (Euskadiko GGKEen Koordinakundearen alegazio berdina);
31. Deustuko Unibertsitatea;
32. Pertsona fisikoa (Euskadiko GGKEen Koordinakundearen alegazio berdina);
33. Economistas sin Fronteras / Mugarik Gabeko Ekonomilariak;
34. Hegoa, Nazioarteko Lankidetz eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua;
35. Zehar – Errefuxiatuekin;
36. Gehitzen, Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen Elkarteak;
37. Pertsona fisikoa;
38. Mundukide Fundazioa.

7.- Instrukzio-fasean gauzatutako izapideen esparruan egindako ekarpenen azterketaren ondoren, «Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legea» lege-aurreproiektuaren hirugarren bertsioa egin zen.

8.- 2023ko urtarrilaren 3an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontseilu horri txostena eskatzen zaio. Urtarrilaren 29an jaso zen txosten hori, eta memoria honetako 4. atalean aztertu dira haren ekarpenak.

9. - 2023ko urtarrilaren 3an, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91.1 artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta, txostena eskatu zitzaion Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari. Urtarrilaren 31n jaso zen txosten hori, eta memoria honetako 5. atalean aztertu dira haren ekarpenak.

10.- Aurreko bi txostenetan egindako ekarpenen azterketa ikusita, «Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legea» lege- aurreproiektuaren laugarren bertsioa egin zen.

11.- Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan aurreikusitakoa betez, 2023ko otsailaren 24an Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko nahitaezko txostena eskatu zitzaion. Apirilaren 5ean eman zen txosten hori. Testuan egindako ekarpenak eta aldaketak memoria honetako 6. atalean azaltzen dira.

3. INSTRUKZIO-FASEAN EGINDAKO EKARPENAK ETA ALEGAZIOAK AZTERTZEA.

Atal honetan deskribatu eta justifikatuko dira lege-aurreproiektuak izan dituen aldaketak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoaren (aurrerantzean, sailaren txosten juridikoa) eta jendaurreko informazioaren, parte-hartzearen eta beste administrazio batzuei egindako kontsultaren izapideetan aurkeztutako alegazioen gogoetak aintzat hartutakoan. Era berean, iradokitako aldaketetako batzuk ez onartu izateko arrazoiak azalduko dira.

3.1. Aldaketak legearen egituran.

Jasotako txostenen eta alegazioen ondorioz, bost artikuluko gutxiago ditu aurreproiektuak (hogeita bost zituen aurreko bertsioak eta hogeitaraingoa), bai eta azken xedapen bat gutxiago ere (lau zituen aurreko bertsioak eta hiru oraingoa). Hala, honako hauek osatzen dute egungo testua: zioen azalpena; xedapenen atala, hogeitaraingoa artikulutan garatu dena –bost kapitulutan egituratuak–; eta azken atala, hiru xedapen iragankor, egungo esparru juridikoaren xedapen indargabetzailea eta hiru azken xedapen dituen.

Txosten honetan bertsio berriko zenbakien arabera aipatu dira artikulukoak.

3.2. Aurreproiektua Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko

3/2022 Legea egokitzea.

3/2022 Legean ezarritako izendapenetara, sailkapenetara eta letra larrien erabilerara¹ egokitu da aurreproiektua, eta, horrenbestez, aldatu egin da euskal administrazio publikoak aipatzen zituzten artikuluko guztien idazketa.

Egokitzapen horren ondorioz, honela aldatu da **aplikazio-eremuari** buruzko bigarren artikulua:

Lege hau aplikatuko zaio:

1.– *Euskal sektore publikoari, honako hauek hartzen dituen:*

- a) *Euskal administrazio publikoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, guztiak ere beren erakunde-administrazioarekin eta haien mendeko eta haiei atxikitako gainerako erakunde instrumentalekin.*
- b) *EUDEL–Euskadiko Udalen Elkarte, Euskal Fondo–Euskadiko Toki Erakunde Kooperanteen Elkarte eta euskal sektore publikoak eratutako nortasun juridikoa duten beste erakunde batzuk, industria- edo merkataritza-izaerarik ez dutenak, interes orokorreko beharrianak asetzeko berariaz sortuak eta lankidetzaren eta elkartasunaren arloan jarduerak egiten dituztenak.*
- c) *Euskal Herriko Unibertsitatea.*

(...)

Egokitzapen horren ondorioz, aurreproiektuan jasotako artikulua:

- *“Euskal sektore publikoaz” edo “euskal sektore publikoko erakundeez” edo “euskal sektore publikoko administrazioez eta erakundeez” ari dira, 2. artikuluko 1. paragrafoko a), b) eta c) letretan jasotako erakundeak direnean.*
- *“Euskal administrazio publikoez” ari dira, 2. artikuluko 1. paragrafoko a) letran jasotako erakundeak direnean.*
- *“EAEko Administrazio orokorraz, foru-organoez eta toki-erakundeez” ari dira, 2. artikuluko 1. paragrafoko a) letran aipatutako “administrazio instituzionala eta mendeko eta atxikitako gainerako erakunde instrumentalak” kanpo uzten direnean.*
- *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra” jarri ordez, “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sektore publikoa” jarri da.*
- *“Eusko Jaurlaritzari lotutako edo haren mendeko sailak, organismoak eta erakundeak” jarri ordez “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa” jarri da.*

¹ Euskal sektore publikoa aipatzeko, letra xeheak erabiliko dira, esaldi bat hasten denean izan ezik; kasu horretan "Euskal sektore publikoa" erabiliko baita. "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari" buruzko aipamenak egokitu dira, aurreko bertsioan Administrazio Orokor gisa jaso baitzen (...).

- “*Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailez eta erakundeez*” ari dira, kanpo uzten direnean sektore publikoari atxikitako edo lotutako erakunde instrumentalak.
- “*Euskal administrazio publikoen mendeko edo haiei atxikitako erakundeak*” jarri ordez, “*euskal sektore publikoko erakunde instrumentalak*” jarri da.

3.3. Aldaketak zioen azalpenean:

Hainbat ekarpen jaso ziren, eta, haien ondorioz, honako aldaketa hauek egin dira zioen azalpenean:

- Okerreko datak eta izendapenak zuzendu dira.
- Erreferentzia berri batzuk txertatu dira, hala nola:
 - Aipamena egin zaio Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna onartzen duen abenduaren 28ko 14/2007 Legeari.
 - Gehiago ikusarazi da krisi globalaren testuingurua eta gehiago nabarmendu da herrialde aberastuek garapen-arazoetan duten erantzunkidetasuna.
 - Arloan espezializatutako GGKEak eta euskal elkarte-sarea gehiago ikusarazi dira lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politikan.
 - Gehiago nabarmendu dira lankidetzak euskal gizarteari egiten dion ekarpena eta Euskadik bultzatzen dituen lankidetzaren eta elkartasunaren ezaugarri bereizgarriak.
 - Aipamena egin zaie Garapenerako Laguntza Ofizialaren kalitatea eta eraginkortasuna bultzatzen duten nazioarteko akordioei.
 - Aipamen esplizituagoa egin zaie Afrikar kontinenteko muturreko pobrezia-egoerari, indigenei eta LGTBI+ kolektiboek.
 - Zabalago azaldu dira legearen kapituluek lortu nahi dituzten helburuak.
- Azkenik, testua hobetu egin da, aurreproiektua erraz ulertzeko modukoa izan dadin. Hemen adierazi behar da testua idazteko beste modu batzuk proposatu dituztela jasotako zenbait alegaziok. Haietako batzuk txertatu dira, baina gehienak birformulatu egin dira, testuaren koherentziari eta estiloari eusteko.

Atal honetan, ez dira aintzat hartu euskal lankidetzarako lehentasunezko lurralde edo biztanleria bat aipatu nahi zuten ekarpenak. Kontu hori kontraesanean dago lege-aurreproiektuaren orientazioarekin; izan ere, EAEko hiru administrazio-mailetara zabaldu du arauaren aplikazio-eremua, eta, horrenbestez, administrazio-maila bakoitzaren eskumenak errespetatuz, 14. artikuluan (plangintza) xedatu da administrazio bakoitzari dagokiola lehentasun sektorialak eta geografikoak zehaztea.

3.4. 1. artikulua (xedea), 3. artikulua (euskal lankidetzeta eta elkartasuna) eta 8. artikulua (lankidetzeta- eta elkartasun-eragileak) artikulua bakar batean biltzea (xedea eta helburua):

Sailaren txosten juridikoak iradoki du definizioak izango dituen artikulua bat sartzea, aurreproiektuari hobeto egokituko zaiona eta koherentzia handiagoa emango diona. Zehazki, proposatu du integratzea aurreko 3. artikulua edukiak (euskal lankidetzaren eta elkartasunaren definizioa) eta 8. artikulua (lankidetzeta-eragileen definizioa), aurreko bertsioan II. kapituluaren zegoena.

Zuzentzat hartu da txostenean jasotako oharpena eta egokitzat hartu da horiek aurreko 1. artikuluaekin (xedea) batera integratzea, eta “1. artikulua. Xedea eta helburua” izena du orain.

Halatan, honako eduki hauek izango ditu artikulua horrek:

- 1.1 artikulua. “*Administrazioen*” politiken aipamena kendu egin da artikulua horretan. Izan ere, aipamen horrek aditzera eman lezake (sektore sozialaren alegazio batzuek ohartarazi zuten bezala) soilik administrazioek parte hartzen dutena dela arlo horretako politika publikoa.
- 1.2 artikulua. Idazketan aldaketak egin dira, lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren definizioa modu egokiagoan lotu ahal izateko legearen xedeekin (4. artikulua).
- 1.3. artikulua. Lehen 8. artikuluan jasota zeuden eragileak definitu ditu artikulua horrek.
- 1.4. eta 1.5. artikulua. Artikulu horietan argiago zehaztu dira euskal lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren jardueren mugaketa geografikoa eta sektoriala. Sailaren txosten juridikoak ohartarazi zuen beharrezkoa zela zioen azalpenean jasotako “Hegoaldeko” herrialdeen definizioa artikuluetara eramatea, eta alegazio askok (GLEKren txostenak, bereziki) eskatu zuten gehiago ikusarazteko Euskadin egiten diren jarduerak (gizarte-eraldaketarako hezkuntza, politiken koherentzia, komunikazioa), Euskaditik egiten den lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren ekintza nagusi gisa.

3.5. Aldaketak 2. artikulua (aplikazio-eremua) idazketan:

Txosten honen 3.2 atalean aipatu den bezala, aurreproiektuaren testua osorik birformulatu da, Euskal Sektorre Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legea egokituta.

Birformulazio horrek eragin berezia izan du 2. artikulua 1. atalaren formulazioan, hauxe da, araudia aplikagarri duen euskal sektore publikoaren osaera definitzen duen atalean. Txosten honen 3.2 atalean ere jaso da kontu hori.

Aldaketa horrez gain, honako hauek egin dira:

- 2.2. artikuluan aipatu da euskal sektore publikoak finantzatutako jarduerak egiten dituzten gobernuz kanpoko erakundeei, gizarte-mugimenduei eta

beste eragile batzuei ere aplikatu behar zaiela araua.

- 2.3. artikuluan jarduera solidarioetan parte hartzen duten pertsona fisikoak aipatu dira (horietako batzuk 18. artikuluan aipatuak).

Bi kontu horiek sektore sozialaren alegazioei eta GLEKren txostenari erantzuten diete, agerian uzteko gobernuz kanpoko erakundeek eta erakunde horietako langileek euskal lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikoan duten garrantzia.

3.6. Aldaketak 3. artikulua (euskal politika publikoa) idazketan:

- 3.1. artikuluan idazketa aldatu da, eta erantsi da politika publikoa dela *“euskal sektore publikoak lankidetzako eta elkartasuneko gainerako eragileekin koordinatuta bultzatzen duena”*, euskal lankidetzaren ekosistema osatzen duten gainerako eragileen (Euskadiko eta kanpoko eragile ez-instituzionalak) funtsezko zeregina agerian uzteko.
- 3.2. artikuluan honako aldaketa hauek egin dira:
 - o *“Lege honetan aurreikusitako helburuak lortzeko, beharrezkoa da lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikoa”* esaldia aldatu da eta haren ordez *“honako hauek dira lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikoaren ezaugarriak”* jarri da. Legearen xedeak hurrengo artikuluan daude deskribatuta, eta horrek inkoherente egiten zuen aurreko esaldi hori.
 - o Hobekuntza txikiak egin dira idazketan.
 - o Beste ezaugarri bat gehitu zaio e) letrari, partaidetzako eta elkarlaneko politika publikoari buruzkoa. Hainbat erakunde sozialen ekarpenen eta GLEKren nahitaezko txostenaren ondorio da alegazio hori. Egokitzat jo da sartzea, aurreproiektuaren zioen azalpenean bertan aipatzen baita kontu hori.

Alegazio batzuk ez dira txertatu, esate baterako UNICEFena. Hartan iradokitzen da lankidetzaren ezaugarrietako bat izatea *“ekintza humanitarioko eta larrialdiko egoerei modu koordinatu eta eraginkorrean erantzutea”*. Koordinazioak eta eraginkortasunak jarduketetarako duten garrantzia kontuan hartuta, uste da koordinazio-espazioei dagokien kontua dela hori, hala nola Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeari edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari, eta ez euskal lankidetzaren eta elkartasunaren ezaugarria. Gainera, elementu horiek jasota daude kalitate-printzipioan (5.g artikulua).

3.7. Aldaketak 4. artikulua (helburuak) idazketan:

Atal honetan alegazioak desberdinak izan dira, batez ere sektore sozialarenak. Kasu batzuetan proposatu zen helburu gehiago sartzea (beste artikulua batzuetan jada definitutako alderdiak errepikatzen zituzten haietako batzuek, hala nola printzipioak, ikuspegiak edo modalitateak, batzuk aipatzearen); beste kasu batzuetan, berriz, elkarren kontrakoak ziren ekarpenak. Hala, ekarpenak aztertu ondoren, aurreko

bertsioan aurreikusitako 4 helburuei eutsi zaie, eta aldaketa batzuk egin dira gehiago sakondu ahal izateko. Hona hemen:

- Bigarren helburuan, desparekotasunaren aurkako borrokari buruzkoan, hauxe sartu da: *“beharrezkoa da nagusi diren ereduak alternatibak azaltzea”*; izan ere, GLEKren txostenak eskatu zuen berariaz aipatzea helburu horri ekiteko estrategiak.
- Hirugarren helburuari dagokionez, bakea eraikitzea sartu da *“gizarte libre (...), baketsu eta inklusiboak”* sustatzearekin bat etorriz.
- Laugarren helburuan idazketa hobetu da, eta sartu da aurreikusitako helburuak betetzeko garrantzitsua dela *“balio solidarioak sustatzea”* eta *“herritarrek protagonismoa izatea”*.

3.8. Aldaketak 5. artikulua (printzipioak) idazketan:

- 5.a) artikuluan berariaz jaso da politikaren jardueretan ez dagoela “onura komertzialik”.
- 5.b) printzipioaren *“Hegoaldeko protagonismoak”* idazketa birformulatu da, hau da, printzipioaren edukian aipatzen zen “horizontaltasuna” sartu da eta kendu egin da lurralde-oinarriko ikuspegiaren sartutako idazketa-aldaketekiko errepikakorra zen edukia (6.e artikulua).
- 5.c) printzipioaren deskribapenean jaso da Euskadiko zein Hegoaldeko eragileei dagokiela politikan parte hartzea.
- Hainbat kolektibok eskatuta, ekitate-printzipioan (5.d) artikulua) esplizituki aipatu dira emakumeen, herri indigenen, haurren eta LGTBI+ kolektiboaren eskubideak, kolektibo horiek testuaren beste atal batzuetan esplizituki aipatzea iradoki baitzuten. Egokitzat jo da kolektibo horiek aipatzea (lehentasunezkoak, baina ez esklusiboak) ekitatea eta diskriminaziorik eza sustatzeko ekintzetan.
- Hobekuntza txikiak egin dira gainerako printzipioen idazketan.

3.9. Aldaketak 6. artikulua (lehentasunezko ikuspegiak) idazketan:

- Giza eskubideen ikuspegiaren idazketa osatu da (6.a artikulua) “eskubide zibilak eta politikoak” ez baitzeuden jasota.
- Ikuspegi feministaren idazketa osatu da (6.b artikulua) Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Genero Taldearen ekarpenarekin.
- Beste ikuspegi bat sartu da (6.c artikulua), ikuspegi lokal-globala zehatz esateko, lehentasunezko gisa lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikorako. Aurreko testuak ikuspegiaren ezaugarri nagusien berri ematen bazuen ere, ez zuen esplizituki aipatzen, eta alegazio askok iradoki dute hura sartzea. Azken idazketa egiteko, jasotako proposamenak kontuan hartu dira, baina formula bat egin da gainerako testuaren estiloarekin bat etortzeko.
- Ikuspegi ekosozialaren idazketa osatu da (6.d artikulua) REAS Euskadi elkartearen ekarpenarekin.
- Lurralde-oinarriko ikuspegiaren idazketa birformulatu da (6.e artikulua) Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen txostenean

iradoki bezala, lankidetzaren deszentralizatuaren ikuspegi bereizgarri hori osoago idazteko.

- Doikuntza txikiak egin dira 6.f) artikulua idazketan.

Jasotako ekarpenetako batzuk ez dira atal hauetan sartu, honako hauek, hain zuzen:

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ekarpena; bere alegazioan adierazi du “proposatu diren ikuspegiak oso ados” dagoela, eta, horregatik, iradoki du “lehentasunezko” hitza kentzea, eta ikuspegi horiek ikuspegi “bakar eta nahitaez bete beharreko” gisa ezartzea. Horri dagokionez, esan behar da, zioen azalpenean aipatu den bezala, esparru malgua eta munduko testuinguruaren aldaketetara egokitzeko modukoa izan nahi duela lege honek. Gainera, bere aplikazio-eremua hiru administrazio-mailetara zabaltzeko ezaugarria du lege honek, eta administrazio bakoitzak, bere eskumenen esparruan, bere estrategia instituzionalekin bat datozen jarduerak garatu ahal izatea du helburu. Hori dela eta, bai atal honetan bai modalitateen atalean (14. artikulua), erabaki da euskal lankidetzaren osorako gaur egun esanguratsuenak diren (horiek ez baitago zalantzan jartzerik) eta ahalik eta eragile gehienek beren gain har ditzakeen ikuspegiak eta modalitateak ezartzea. Ez da egokitzat jo ikuspegi/modalitate horiek bakarrak izan daitezen planteatzea, eta ez dira “zerrenda” gisa planteatu. Lege honek, irauteko asmoa baitu, adostasun nagusiak markatzen ditu, baina betiere irekia dago mundu aldakor honetan garrantzitsuak diren ikuspegi berriak garatzeko aukera.

Aurreko arrazoibidearekin jarraituz, honako ikuspegi hauek ez dira sartu: LGTBI Euskal Behatokiaren eta Gehitzen Elkartearen alegazioek proposatu duten “sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia”, UNICEFek iradokitako “haurren eskubideen ikuspegia” edo “bizi-zikloaren garapenaren ikuspegia” edo REAS elkarteak proposatutako “gaitasunen ikuspegia”. Goian nabarmendu den bezala, aurreproiektuan aurreikusitako sei ikuspegiak dira gaur egun euskal lankidetzaren osoarentzat esanguratsuenak; dena den, lehentasunezko ikuspegi gisa aipatu dira (ez dira baztertzailerak, ezta bakarrak ere).

Nolanahi ere, eta aurreko aurreproiektuan ikusezin izan zitezkeen gai horiek agerian jartzeko, haurren eskubideen eta LGTBI+ kolektiboen eskubideen aipamena sartu da ekitate-printzipioan (5d artikulua). Honako hau dio printzipio horrek: *“Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politikaren jardueren oinarria da diskriminaziorik ez izatea, sexuaren, generoaren, sexu-orientazioaren, jatorri etnikoaren edo arrazaren, hizkuntza- edo kultura-identitatearen, adinaren, ideologiaren edo erlijioaren ondorioz, besteak beste”*.

Gaitasunen ikuspegiari dagokionez, nahikoa jasota dagoela uste da, euskal sektore publikoaren funtzioen artean lankidetzaren eragilearen gaitasunak indartzei buruzko funtzio bat sartu delako (7.c artikulua) eta jardueraren modalitateen artean “ezagutza sortzea” esplizituki aipatu delako (15.4.d artikulua).

3.10. Aldaketak euskal sektore publikoak lankidetzaren eta elkartasunaren alorrean dituen funtzioen 7. artikulua idazketan:

- Beste bi funtzio definitu dira, euskal sektore publikoa osatzen duten

erakundeentzat eta administrazioentzat komunak direnak. Lehenengoak (c letran) lankidetzaren eragileen gaitasunak indartzearekin du zerikusia, eta bigarrenak, berriz, (j letra) ezagutza sortzearekin. Bi ezaugarri horiek ez zeuden hain esplizituki aipatuta modalitateen eta ezagutzaren kudeaketaren atalean. Erakunde sozial baten ekarpenari berriro ekitean sortu da aldaketa hori, aipatzen baitzuen aurreproiektuaren helburuen artean sartu behar zirela alderdi horiek (beste modu batean idatzita). Uste da elementu horiek garrantzia dutela testuan, baina ez dira egokitzat hartu ez proposatutako idazketa ez kokapena.

Ez dira sartu GLEKren txostenean jasotako ekarpenak, II. kapitulua (euskal lankidetzaren antolaketa) berrikusteko eskatzen zutenak “*euskal lankidetzan inplikaturako eragile guztien presentzia orekatu ahal izateko*”. Txosten honen aurreko ataletan adierazi den bezala, aldaketak egin dira zioen azalpenean eta aurreproiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluetan, erakunde sozialei presentzia eta garrantzi handiagoa emateko, bereziki GGKEei. Hala, 8. artikulua (eragileen definizioa), lehen bigarren kapitulu honetan jasota zegoena, 1. artikulua zati bihurtu da. Hala ere, ez da egokitzat jo erakunde pribatuei funtzioak edo eskuduntzak garatzea, baliabide publikoekin finantzaturako jardueren esparruan baino. Lege honek, bigarren kapitulu honetan (7. artikulutik 13. artikulura), politika publikoen araubide juridikoa ezarri eta arautzen du, eta, horretarako, erakunde-sarearen funtzioak eta eskuduntzak zehazten ditu, bai eta politika publikoan gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartze aktiboa bermatzen duten koordinazio-organoen funtzio eta ezaugarri nagusiak ere.

Bestalde, Hegoa Institutuak alegatu du administrazioen funtzio komunen artean (gaur egungo 7. artikulua) ez dagoela unibertsitateari dagokion funtzio bat bera ere, eta zenbait funtzio espezifiko sartzea proposatu du. Garrantzitsua da azaltzea Euskal Herriko Unibertsitateak –euskal sektore publikoaren barruan dagoenak– artikulua honetan definitutako funtzioak ere badituela esleituta. Funtzioen idazketa orokorra da, eta sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei aplikatu dakiekeen lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren sustapenari erantzuten dio. Hala, ez da beharrezkotzat jo unibertsitatearentzat funtzio espezifikoak eta bereziak ezartzea, erakunde bakoitzari baitagokio, dituen eskumenen arabera, berriazko ekintzak, baliabideak eta mekanismo propioak ezartzea, izaera orokorreko eskuduntza horiek gauzatu ahal izateko. Nolanahi ere, lehen azaldu den bezala, ezagutza eta gaitasunak sortzeari dagokionez, administrazio guztiei egotz dakizkiekeen funtzioak txertatu dira artikulua honetan, eta unibertsitateak eginkizun handia du horietan.

3.11. Aldaketak EAEko administrazio orokorraren sektore publikoko eginkizunen esleipenean (8. artikulua):

- Artikuluan azaldutako eginkizunen atribuzioak egokitu dira, sailaren txosten juridikoaren gomendioaren arabera. Izan ere, txostenak ohartarazten du EAEko administrazio orokorrari esleitutako eginkizunetako batzuk Eusko Jaurlaritzari edo «arloan gaineko eskumena esleitzen zaion sailari» dagozkiola.

- Aurrekoarekin lotuta, EAEko administrazio orokorrari beste eginkizun bat esleitu zaio. Eginkizun orokorra da eta bai lankidetzaren eta elkartasuneko politika bultzatzearekin bai baterako gobernu-ikuspegiarekin, zeina zioen azalpenarekin aipatzen baita, aurrera egitearekin du zerikusia.
- Gainera, txosten juridikoak eta Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostenak iradokita, eginkizun hau ezabatu da: «*d) eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari (...) plangintzak eta txostenak egiteko behar den lankidetzaren eta elkartasun-erloto informazioa bidaltzea*». Izan ere, egokiagozat jotzen da eLankidetzaren izatea informazioa biltzearen arduraduna. Hurrengo artikuluan (9. art.) eLankidetzari esleitutako eginkizunak hori ere barne hartzen zuten, gomendioa bete da.
- Sailaren txosten juridikoak jarritako oztipoa gorabehera, bere horretan utzi da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren lankidetzari eta elkartasunari buruzko urte anitzeko planak Gobernu Kontseiluak onesteko xedapena. Aurreproiektuaren azalpen-memorian azaldu zen moduan, egokitzat jotzen da Gobernu Kontseiluak onestea Jaurlaritzak arloan izango duen urte anitzeko jarduketaren esparrua. Izan ere, «*XII. Legegintzaldiko egutegiak Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren arloko Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana plan sektorial eta ez-estrategikotzat hartzen duen arren, beharrezkotzat jotzen da kontuan izatea lege honek ezartzen dituen eraldaketaren helburuek Euskadiko eragile sozial eta instituzional guztien jarduketaren behar dutela eta, beraz, Jaurlaritzako arlo eta sail guztiei deitzen dietela*» (azalpen-memoriaren 21. or.).
- Sailaren txosten juridikoko oharra gorabehera, bere horretan utzi da euskal lankidetzaren eta elkartasunaren egoerari buruzko txostena (bost urtean behingoa) Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran eztabaidatzeko xedapena. Txostena osoko bilkuran eztabaidatzea egokitzat jotzen da, eztabaidari garrantzi politiko eta publiko handiagoa emateko.

3.12. Aldaketak eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari esleitutako eginkizunetan (9. artikulua):

- Artikuluaren 1. apartatua aldatu da, eLankidetzaren definizioa Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean erabilitako izendapenera egokitzeko. Hala, «*Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa*» dela esan beharrean, «*organo eskudunari atxikitako ente instituzionala*» dela esaten da.
- Artikuluaren 3. apartatua, eLankidetzaren eginkizunak zehazten dituen, aldatu da, aurreko artikuluan sartutako aldaketekin bat etorriz. Horrela, sailaren txosten juridikoko oharra bete dira. Hain zuzen ere, txostenak ohartarazten du lankidetzaren eta elkartasunaren arloko eskumena esleitzen zaion sailari dagozkiola xedatutako eginkizunetako batzuk, hala nola «politikaren gidalerroak prestatzea».

Apartatu horretan bertan, plangintzari dagokionez, eLankidetzari esleitutako eginkizunak birformatu dira eta argitu da honako hauek dagozkiola: i) Gobernu Kontseiluak [8.2.c) artikulua arabera] onetsi beharko duen urte anitzeko plangintza-proposamena egitea; ii) gainerako sailek eta entitateek xedatutako jarduketak beren plangintza sektorialetan txerta ditzatela bultzatzea eta, behar izanez gero, horretarako laguntza ematea; iii) eLankidetzaren plangintza propioa betearaztea; eta iv) EAEko sektore publikoko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko urte anitzeko planaren ezarpena ebaluatzea. Bai txosten juridikoak bai Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostenak ohartarazi zuten bazitekeela aurreko formulazioan inkoherentziak egotea.

Apartatu horretan bertan, sailaren txosten juridikoko oharra gorabehera, bere horretan utzi da «kide anitzeko edo sailen arteko organoetan parte hartzea» eginkizuna; izan ere, gure aburuz, formulazio hori ez dago kontraesanetan organo bakoitzak bere osaera erabakitzeke duen eskumenarekin.

3.13. Aldaketak 10. artikulua idazketan (garapen jasangarrirako politiken koherentzia):

- 1. apartatuaren idazkera hobetu da, errazago ulertzeko. Zenbait alegaziok apartatu hori aipatu zuten, eta horrek erakusten du hasierako idazkera ez zela behar bezain argia.
- 2.a) apartatuaren idazkera egokitu da, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiko Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzaren txostenak iradoki bezala. Izan ere, horren arabera, aurreko idazkerak ulertaraz zezakeen Lehendakaritzari dagozkion gobernu-politika guztien koherentzia bultzatzeko eginkizunak Jaurlaritzaren kanpo-ekintzara mugatzen direla, baina, «Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako politiken koherentziarako erreferentzia-esparrua» delakoarekin bat etorriz, mota guztietako politikei aplikatu behar zaizkio, bai barrukoei bai kanpokoei.
- 2.b) apartatuaren idazkera egokitu da, aipatutako eremuen artean «enpresen nazioartekotzea» barne hartzeko, zenbait eragile sozialen alegazioetan eskatu bezala.
- 4. apartatuaren (doako xedapeneko egintzei buruzkoaren) idazkera aldatu da, Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostenean proposatutako gomendio eta idazkerari jarraituz.
- Artikuluaren 5. apartatuan zegoen eginkizuna ezabatu da, errepikakorra gertatzen delako (9.3 artikuluko eginkizunetan xedatzen da eta), sailaren txosten juridikoak ohartarazi bezala. Izan ere, haren arabera, eLankidetzak «zaindu egingo du garapen jasangarrirako politiken koherentzia».

3.14. Idazkera-aldaketak 11. artikuluan (Lankidetzarako eta Elkartasunerako

Euskal Kontseilua) eta 12. artikuluan (erakunde arteko elkarlana):

Ez dago funtsezko aldaketarik artikuluetan, terminologian izan ezik, testua Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legea egokitzearen ondorioz.

3.15. Aldaketak 13. artikuluan (Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea):

- 13.1 artikuluan, batzordea «administrazio publikoen» arteko koordinazio- eta lankidetzeta-organoa dela esaten den lekuan, administrazio publikoen ordezkari «euskal sektore publikoa» jarri da, 2.1 artikulua idazkera berriarekin bat etorriz.
- 13.2 artikuluan, idazkera aldatu da batzordea EAEko hiru administrazio-mailek eratuta egon dadin gutxienez.
- 13.4 artikuluan, euskal administrazioen izendapen-aldaketarekin lotutako aldaketa txikiak txertatu dira eta aipatzen diren artikuluen zenbakiak eguneratu dira.

3.16. Aldaketak 14. artikuluan (plangintzari buruzkoan):

- 14.1 artikulua aldatu da, «EAEko administrazio orokorrari, foru-organoei eta toki-erakundeei» bakarrik esleitzeko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko plangintzak egiteko betebeharra.
- Arabako Foru Aldundiak eskumenen analisiari buruz aurkeztutako txostenak, artikulua horri (zehazki 14.4 artikuluari) dagokionez, ohartarazten du «jasoko dituzte» aditza erabiltzeak administrazio publikoek arloan duten eskumenaren inbasioa ekar dezakeela. Artikulu osoaren idazkera egokitu da desadostasun hori saihesteko asmoz.
- Azkenik, 5. apartatua, urte anitzeko plangintzen ebaluazioari buruzkoa, birformulatu da, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeak aurkeztutako txostenari jarraituz.

3.17. Aldaketak 15. artikuluan (modalitateei buruzkoan):

- Idazkera aldatu da (1. eta 4. apartatuetan), «jarri» eta «sustatzen» aditzen ordezkari erreferentzia lasaigoak ipiniz, eskumenei dagokienez desadostasunik ez sortzeko. Arabako Foru Aldundiak eskumenen analisiari buruz aurkeztutako txostenean ikusi zen arazoa. Gainera, lehen apartatuan, «beren eskumenen esparruan» oharra gehitu da, sailaren txosten juridikoak proposatu bezala.
- 4. apartatuaren idazkera honela aldatu da:

- «Gutxienez» kendu eta horren ordean «besteak beste» jarri da, sailaren txosten juridikoak proposatu bezala.
- a) letran, gaineratu da lankidetzaren teknikoaren eta ezagutzen mobilizazioaren xedea honako hau dela (lehenago aipatutakoaz gain): «erronka komunei aurre egiteko irtenbide berritzaile eta eraginkorrak partekatzea». Aldaketa hori REAS Euskadiren ekarpenaren harira sartu da, zeinean erakunde arteko lankidetzaren aipatzen baita.
- d) letran, modalitatearen izendapena zabaldu da, «prestakuntzarako lankidetzaren»tik «prestakuntzarako eta ezagutza-sorkuntzarako lankidetzaren»ra pasatuz. Gainera, deskribapenean «ikerketaren bultzatzea eta herritarren kontzientzia kritikoa eta solidarioa zabaltzea» txertatu da, formulazio egokiagoa delako, Hegoa Institutuaren alegazioak dioenez.

GLEK-en nahitaezko txostenak aurreproiektuaren organo sustatzaileari eskatu zion administrazioek zuzenean (beste lankidetzaren eragile batzuekin bat egin gabe) gauzatzen duten lankidetzarako gehieneko muga bat ezartzeko aukera azter zezala. Alegazio horretan, 1/2007 Legea aipatzen da, Eusko Jaurlaritzarentzako muga bat ezarri zuen eta. Hain zuzen ere, zera adierazi zuen: «(...) *Eusko Jaurlaritzak edo berari atxikitako herri-erakundeek beren lankidetzaren aurrekontuaren % 10 izango dute mugatzen, bi aldeko eta alde askotako jarduerak gauzatzeko*».

Aurreproiektuaren azalpen-memorian zabal azaldu zen moduan, muga hori ez da egokitzat jotzen, euskal sektore publikoaren zuzeneko lankidetzaren jarduketak mugatzen dituelako eta balioa kentzen dielako sektorea osatzen duten administrazioek eta entitateek lankidetzaren politikaren betearazle gisa dauzkaten zereginari eta gaitasunei. Horrela, gure aburuz, administrazio bakoitzaren urte anitzeko plangintzetan zehaztu beharko dira tresna eta jarduketaren modalitate bakoitzari eskainitako aurrekontu-baliabideak (14.4 artikuluan ezartzen den moduan).

3.18. Aldaketak 16. artikuluan (laguntzen eta dirulaguntzen arauketari buruzkoan):

Sailaren txosten juridikoaren arabera, artikulua horretan jasotako xedapenek Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legeak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenak) dirulaguntzei buruz ezarritako araudiari eragiten diote, berariaz aldatu gabe. Halaber, txostenak ohartarazten du EAEko dirulaguntzei buruzko legearen aurreproiektua, Ekonomia eta Ogasun Sailak sustatua, izapidetzen ari dela eta arazoak egon daitezkeela koherentziari eta aipatutako araudiaren aplikazioari dagokienez.

Aurreproiektuaren azalpen-memorian aipatzen den moduan, kontu horiek Eusko Legebiltzarraren 26/2021 Mozioari jarraituz arautzen dira. Mozio horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio araua prestatzeko prozesuan «saiatu dadila prozesu burokratikoak bizkortzen euskal lankidetzaren jarduketaren eraginkortasuna areagotzeko». Gainera, beste autonomia-erkidego batzuetan badaude lankidetzaren

arloko lege sektorialak laguntzei eta dirulaguntzei buruzko xedapenak jasotzen dituztenak.

Xedapen horiek EAEko dirulaguntzei buruzko etorkizuneko legearekin koherenteak izateko beharri dagokionez, aipatu behar da aurreproiektu hau Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidaliko zaiola, bulego horrek bere nahitaezko txostena eman dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginak (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartuak) III. tituluko IV. kapituluan ezarritakoari eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak (EAEko eremuko barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak) xedatutakoari jarraituz.

Beraz, artikulua horretan honako aldaketa hauek sartu dira:

- 2.d) apartatuan, berandutze-interesa eskatzeari buruzko salbuespena sartu da, garapen jasangarrirako eta elkartasun globalerako lankidetzari buruzko legearen aurreproiektuaren hirugarren xedapen gehigarrian jasotzen den moduan (lege hori estatu-mailakoa da, joan den azaroaren 24an onartu zuen Diputatuen Kongresuaren osoko bilkurak eta abenduaren 21ean Senatuak, baina oraindik ez da BOEn argitaratu).
- 2. apartatuko e) xedapena ezabatu da. Horren arabera, apartatuan aurreikusitako salbuespenak zuzeneko dirulaguntzak emateko kasuetan ere baziren aplikagarri. Apartatuaren idazkerak laguntza eta dirulaguntza guztiak dituen hizpide, prozeduren arteko bereizketarik egin gabe, xedapena ez da beharrezkotzat jotzen.
- Artikuluaren 3. apartatuan, aurreproiektuaren euskarazko bertsioaren eta gaztelaniazkoaren arteko batasunik eza zuzendu da; izan ere, hutsegitez, gaztelaniazko bertsioan ez zen betekizun hau sartu: «a) *estar inscrita en el registro público correspondiente en función de su naturaleza jurídica*». Sailaren txosten juridikoak akats hori ohartarazi zuen eta aurreproiektuaren bigarren bertsioan, zeinari buruz egin baitzen txostena entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapidean, konpondu zen.
- 3. apartatuaren idazketan (zeinean eLankidetzaren deialdien onuradun izateko betekizunak ezartzen diren), zehaztu da alderdiok pertsona juridikoei bakarrik dagozkiela, ez deialdietan (adibidez, beka-deialdietan) parte har dezaketen pertsona fisikoei.
- 3. apartatuko c) letraren idazkera zabaldu da, zehazki, «irabazi-asmorik ez» izateko betekizunari buruz, REAS Euskadik —kooperatibak, elkarteak, laneratze-enpresak eta abar biltzen dituen sareak— egindako alegazioa dela-eta. Entitate horrek ohartarazi du betekizunak, aurreproiektuan jasota dagoen moduan, deialdietan parte hartzeko aukeratik kanpo uzten dituela ekonomia sozial eta solidarioko enpresa-entitateak. Azkenik, ekonomia sozial eta solidarioko entitateentzako salbuespena xedatzen da, baldin eta «*beren estatutuetan berariaz baztertzen badute kideen arteko mozkin-*

banaketa».

- 3. apartatuko e) letra ezabatu da. Zenbait alegazio jaso ziren betekizun horri buruz. Alde batetik, idazkera aldatzea gomendatzen zen, modu irmoagoan zehazteko Euskadiko jarduketek ez zutela xedapena bete behar; beste aldetik, ohartarazi zen xedatutako salbuespenek ez zietela eragiten izaera berdinei (entitateen, jarduketa-esparruaren edo testuinguruaren ezaugarriei dagokienez). Behin alegaziook aztertuta, ondorioztatu da jarduketak betearazpen-herrialdeko toki-erakunde baten bidez betearazteari lehentasuna ematea plangintzei edo lankidetzatresnei dagokiela gehienbat, ez legearen zehaztapenari.

3.19. Aldaketak 17. artikuluan (finantzaketa):

Aurreproiektuaren azalpen-memoriak zabalki azaltzen du zergatik den bidezkoa 17. artikulua —politikaren finantzaketari buruzkoa— eta zer garrantzi duen % 0,7ari buruzko xedapena betetzea. Bai GLEKen nahitaezko txostenak bai Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen eta eragile sozialen gainerako txostenek eta alegazioek oso modu baikorren baloratzen dute apartatua, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean jada xedatutako konpromisoa berreskuratzen baitu.

Hona hemen artikuluan sartu diren aldaketa nagusiak:

- 17.2 artikuluan, «euskal administrazio publikoek» esan beharrean «euskal sektore publikoak» jarri da.
- Artikulu beraren 5. apartatuan, zehaztu da lankidetzatresna eta elkartasuneko politikari esleituta dauden eta gauzatzen ez diren aurrekontu-kredituei buruzko xedapenak «Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrari» bakarrik eragiten diola, ez administrazio guztien aurrekontuari. Ohar hori Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen txostenean eta Arabako Foru Aldundiaren txostenean jasota dago eta biek ohartarazten dute balitekeela gainerako administrazioek aurrekontuen arloan dituzten eskumenetan bidegabe sartzeari.

Sailaren txosten juridikoak ohartarazten du aipatutako artikulua 5. apartatuko xedapenak zalantzak sortzen dituela. Izan ere, horren arabera, «*dagokion aurrekontu-ekitaldian gauzatzen ez diren aurrekontu-kreditu esleituak, gainera, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako aurrekontu-sail baliokidean sartuko dira, osagarri*». Organo sustatzailearentzat garrantzitsutzat jotzen da xedapen horri eustea, kontuan izanik lankidetzatresna eta elkartasuneko politika inguruabar konplexu eta aldakorrak (hala nola natura-hondamendiak, krisi beliko eta humanitarioak, erakunde-krisiak, ezegonkortasun politikoa eta gizarte-gatazkak) izan ohi dituzten herrialde eta lurraldeetan betearazten dela gehienbat.

Bestalde, ez da aldatu errenta nazional gordinaren (ENGaren) indizearen aipamena, haren % 0,7 garapenerako laguntza ofizialera (GLOra) bideratzeko asmoz. GLEKen nahitaezko txostenak eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak entitatearen txostenak iradokitzen dute euskal esparruan indize bat edukitzeko bideragarritasuna aztertzea (zehatz-mehatz, Euskadiko barne-produktu gordina, Eustatek Euskadiko errenta nazional gordina argitaratzen ez duen bitartean). Iradokizun hori azertu da eta zenbait oztopo aurkitu dira. Arabako Foru Aldundiak alegatu duenez, formulazioak «aurrekontuak egiteko eta onesteko eskumenak urratzen ditu». Ildo horretan, gure ustez, euskal sektore publikoko GLOa estatuko GLO guztiaren zati bat denez, ENGa aipatzeak, erakunde bakoitzaren ekarpen zehatza ezarri gabe, ez lituzke aipatutako eskumenak urratuko, estatuak hartutako nazioarteko konpromisoa delako. Hala ere, Euskadiko barne-produktu gordina aipatuz gero, baliteke eskumenok urratzea, administrazio-maila bakoitzaren ekarpenerako irizpide bat ezarri beharko litzatekeelako. Aurreproiektuari erantsitako azalpen-memorian azaldu zen moduan, zailtasun handiak daude euskal administrazio bakoitzaren ahalegin erlatiboa kalkulatzeko, honako faktore hauek kontuan izanik: haren zerga-araubidearen konplexutasuna, hiru lurralde historikoen artean baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko zailtasunak eta kupoaren bidez EAEk gain hartu ez dituen eskumenen kargari estatuak eusteko egindako ekarpena.

3.20. Kooperante profesionali, boluntarioei, prestakuntzaldian dauden pertsonei eta administrazioetako langileei buruzko artikuluen integrazioa artikulua bakar batean, alegia, «lankidetzaren eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzen duten Euskadiko pertsonak» izenekoan (18. artikulua):

Sailaren txosten juridikoak ohartarazten du badaudela zenbait arazo aurreproiektuaren aurreko bertsioak pertsonei (kooperante profesionali, boluntarioei, prestakuntzaldian daudenei eta administrazioetako langileei) buruz jasotzen zituen xedapenak direla eta. Kontu horiei erantzuteko, lankidetzaren eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzen duten pertsona fisikoak eragiten dieten arauketak artikulua bakar batean integratu dira.

- Apartatu berri bat (18.1 art.) sartu da, zehazki pertsonen eta oro har euskal herritarren jarduketa solidarioetan partaidetza aktiboa sustatzeko helburuarekin. Aldaketa hori 2. artikuluan (aplikazio-esparrua) 3. apartatua sartzearekin lotuta dago; bertan, lankidetzaren eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzen duten pertsona fisikoak aipatzen dira. Pertsona solidarioak (besteak beste, gizarte-erakundeetako langileak) aipatzea eta aintzatestea gizarte-sektoreko entitateek egindako zenbait alegaziori (zehazki, Euskadiko GGKEen Koordinatzailearen txostenari) emandako erantzuna da.
- Kooperante profesionalaren definizioari dagokionez (18.2 art.), ezabatu da Euskadiko lankidetzaren eragile batekin harreman juridikoa izan behar duela zioen aipamena; izan ere, sailaren txosten juridikoak ohartarazten duenez, 519/2006 Errege Dekretuak, Kooperanteen Estatutua ezartzen duenak, xedatzen du harreman juridikoak bat etorri behar duela aipatutako errege-dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoarekin. Garrantzitsua da aipatzea arauketa hori —estatu-mailakoa— laster aldatuko dela. Horregatik, eta epe

laburrean ez denez aurreikusten arloko arauketa autonomikorik, aurreproiektuak aipatzen du araudi aplikagarrian xedatutakoak arautuko duela kooperante profesionala.

- Boluntarioaren definizioari dagokionez (18.3 art.), «Euskadiko lankidetz-eragileak» aipatu beharrean «irabazi-asmorik gabeko erakundeak» aipatzen dira orain; izan ere, sailaren txosten juridikoak ohartarazten duenez, Boluntarioei buruzko 17/1998 Legeak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin jarduten duten pertsonak bakarrik jotzen ditu boluntariotzat.
- Prestakuntzaldian dagoen pertsonaren definizioari dagokionez (18.4 art.), «lan-kontraturik gabeko praktika profesionalen» aipamena sartu da, sailaren txosten juridikoaren oharrari jarraituz.
- 18.5 artikuluan, bere horretan utzi da boluntarioei eta prestakuntzaldian dauden pertsonen buruzko xedapena, alegia lankidetz-eragileek haiek in akordio bat sinatu behar dutela eta egiten den jarduketa solidarioaren ondoriozko arriskuak estaltzen dituzten aseguruak kontratatu behar dituztela ezartzen duena.
- 18.6 artikuluan, bere horretan utzi da euskal sektore publikoa osatzen duten administrazioen zerbitzura ari diren langileek lankidetzako eta elkartasuneko jarduketetan parte hartu ahal izango dutela dioen xedapena. Partaidetzok bereziki interesgarriak dira lankidetz teknikoaren eta ezagutza-trukearen modalitateetarako.
- Azkenik, xedapen hau ezabatu da: «*euskal administrazio publikoen zerbitzura ari diren langileak zerbitzu berezietan deklaratu ahal izango dira, lankidetz-programetan hilabetetik gorako misioak egiten dituztenean*». Sailaren txosten juridikoak iradoki bezala, eLankidetzak txostena eskatu zion Funtzio Publikoko Zuzendaritzari, artikuluko horri buruz zuen iritzia berri izateko. Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena xedapen horren aurkakoa izan zen, arlo horretako definizioa estatuko legegilearen eskumen eskusiboa delakoan. Ondorioz, artikuluetatik ezabatzeaz gain, azken xedapenetatik bigarrena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1998 Legea aldatzen zuena, orobat kendu da. Xedapen horren helburua zen artikuluetako xedapenari lege-estaldura ematea.

3.21. Aldaketak 19. artikuluan (ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa):

- Unibertsitate-sektoreak, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuaren eta Deustuko Unibertsitatearen ekarpenen bitartez, ohartarazi du aurreproiektuak ez diola euskal unibertsitate-sistemari behar adinako ikusgaitasunik ematen lankidetz-eragile gisa.

2. artikulua (aplikazio-esparrua) aldatuz eta Euskal Herriko Unibertsitatea euskal sektore publikoaren zati gisa definituz, aurrerapauso bat egin da unibertsitate publikoak bere eskumenen esparruan eginkizun eta atribuzio

zehatzak eduki ditzan lankidetzaz eta elkartasuneko politika publikoa diseinatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko.

Nolanahi ere, akademiak, unibertsitateak eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren Euskadiko sareak daukaten funtsezko zereginari garrantzi handiagoa emateko asmoz, beste apartatu bat (19.1 art.) gehitu da. Bertan, eragile horiekin elkarlanean azterketak eta ikerketak sustatzea esleitu zaie euskal administrazio publikoei [2.1.a) artikuluan jasotakoei].

- 19.2 eta 19.4 artikuluetan, testua egokitu da, «euskal administrazio publikoen» ordez «euskal sektore publikoa» aipatuz, arauaren aplikazio-eremuaren zehaztapenarekin bat etorritz.
- 19.3 artikuluan, «ikerketak» sartu dira, Deustuko Unibertsitatearen alegazioei erantzuteko; izan ere, ohartarazi zuen ez zela prozesu zabalagorik aipatzen (garapena/garapen txarra...) lankidetzaz-politikaren praktikara mugatutakoez gain.
- 19.5 apartatuan, zeinean garatu beharreko materialen irisgarritasun-mekanismoak aipatzen diren, «adinarekin» eta «dibertsitate funtzionalaren» aldagaiak sartu dira, UNICEFen eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen alegazioek iradoki bezala.

3.22. Aldaketak 20 artikuluan (komunikazioa):

- 20.1 eta 20.4 artikuluetan, Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legeak ezarritako izendapen berrietara egokitu da testua. «Euskal administrazio publikoen» ordez «euskal sektore publikoa» aipatu da, eta «euskal administrazio publikoei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoen» ordez, berriz, «euskal sektore publikoko entitate instrumentalak».

3.23. Aldaketak lehen xedapen iragankorrean eta bigarreanean:

- Aipatzen diren artikuluen zenbaketa eguneratu da.

3.24. Aldaketak hirugarren xedapen iragankorrean:

- «Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa» ez zen aipatzen eta hutsegite hori zuzendu da.
- b) betekizunaren idazkera ordeztu da, 16.3.c) artikuluan jasota dagoenaren arabera.

3.25. Ez dago aldaketarik xedapen indargabetzaile bakarraren idazketan.

3.26. Aldaketak azken xedapenetatik lehenean:

- Xedapenaren bigarren apartatua aldatu da, Euskal Sektore Publikoaren

3/2022 Legean erabilitako terminologiarekin eta aurreproiektuaren 9.1 artikulua idazkerarekin bat etorriz.

- Xedapenaren 3. apartatua deskribaturiko helburuak eta eginkizunak ordeztu dira, aurreproiektuaren 9.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3.27. Ez dago idazkera-aldaketarik azken xedapenetatik bigarrean eta hirugarrean, arau bidez garatzeko ahalmena emateari eta indarrean sartzeari buruzkoetan.

Azkenik, lehenago jada aipatu den moduan, adierazi behar da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1998 Legea aldatzen zuen xedapena ezabatu dela, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena ikusi ondoren.

4. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN TXOSTENAREN BALORAZIOA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, dagokion txostena eskatu zion batzorde horri 2023ko urtarrilaren 3an arauaren organo sustatzaileak. Urtarrilaren 29an jaso zen txosten hori (3/23 irizpena). Ondoren deskribatzen dira irizpen hori aztertzearen ondorioz egindako ekarpen eta aldaketak:

Gai orokorrei dagokienez, lege-aurreproiektuaren funtsezko alderdien balorazio positiboa ikusi daiteke, hala nola garrantzi politiko eta sozial handiagoa ematea euskal lankidetzari, erakunde arteko koordinazioan eta antzeko elementuetan emandako aurrerapausoa, prozedura burokratikoak arintzeari bidea zabaltzea edo % 0,7aren helburu bera lankidetzaren eta elkartasun-politikarako.

Modu negatiboan aipatzen du txostenak GGKEen zeregina desagertzen ari dela ikusi daitekeela testuan. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez *“ez da bateragarria legeak lankidetzaren eragile zerranda handitzeko duen xede legitimoa nazioarteko elkartasunaren eta lankidetzaren kudeatzaile, motibatzaile, bultzatzaile eta defendatzaile nagusiarekin justizia-ariketa bat egitearekin”*. Horri dagokionez aipatzekoa da aurreproiektuaren helburua lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren garrantzi sozial eta politikoa gehitzea baino ez dela, horretarako herritarrak oro har mobilizatzeko deialdi zabala eginez, baita askotariko eragile sozial, instituzional eta ekonomikoak mobilizatzeko ere. Aurreko horrek ez du ezein kasutan ere esan nahi espezializatutako GGKEei balioa kentzen zaienik, baizik eta legeak aurreikusitako helburuen alde gizarteak duen konpromisoa zabalduko dela, eta Euskadiko eta Hegoaldeko gainerako eragileekin ezartzen diren aliantzen garrantzia onartzen dela. Aurreproiektuaren hirugarren bertsioak barnean hartu ditu jada gizarte-erakundeak, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ekarpenak. Horregatik, ez da aldaketarik egin komentario horren ondoren, jada zuzenduta dagoela ulertzen baita. Puntu hori gehiago garatzeko erreferentzia gisa hartu daitezke memoria honen 3.3.tik 3.6.rainoko idatz-zatiek biltzen dituzten azalpenak.

Bestalde, ekarpen espezifikoak eta idazkuntza-iradokizunak egiten ditu irizpenak. Hemen aztertzen dira artikuluen ordenari jarraikiz:

Zioen azalpenean sindikatuen aipuari buruzko ekarpenak (aurreproiektuaren gaztelaniazko bertsioaren 2. orriko 3. paragrafoa) eta elkarrizketa sozialari buruzkoak (aurreproiektuaren gaztelaniazko bertsioaren 3. orriko azken aurreko paragrafoa) txertatu dira.

Ez da barnean hartzen lan-eskubideen eta negoziazio kolektiboaren defentsarako proposatutako aipua (aurreproiektuaren gaztelaniazko bertsioaren 4. orriko azken-aurreko paragrafoa). Paragrafo horretan aipatutakoak baino elementu bereizgarri gehiago ditu euskal gizarteak, euskal lankidetzak eta elkartasunak lotura handiagoa izan duten elementuak eta garrantzitsuenak bezala identifikatu direnak hautatu dira, eta hori ez da lan-eskubideen arloko lankidetzaren kasua.

6. orrialdeko hirugarren paragrafoan biltzen da aukerarik eta itxurazko lanik ezaren erreferentzia (nazioartean oso erabiliak diren terminoak enplegu-arloan erronka globalen erreferentzia egiteko, Euskadin zein planetako beste latitude batzuetan). Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostenean iradokitakoaz bestelako idazkuntza alternatibo batekin egiten da; izan ere, prekarizazioari eta eskubide sindikalei buruzko erreferentzia egiten du txostenak, eta euskal agendak oso ondo zehaztuta dituen eta itxurazko lanaren arloan erronkei zuzendutako begirada global batetik hain onargarriak ez diren terminoak ditugu. Idazkuntza alternatiboa egiteko berriro hartu da Nazio Batuek erabilitako terminologia,² Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostenak berak biltzen duena Garapen Jasangarrirako 8. Helburua aipatzean, non “hazkunde ekonomiko inklusibo eta jasangarria, enplegua eta pertsona guztientzako itxurazko lana sustatzea” aipatzen den halaber.

I. kapitulua. Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoa

Lehenengo artikuluari dagokionez (xede eta helburua), zehazki aurreproiektuaren 1.3. artikuluari gagozkiola –non lankidetzak eta elkartasun-eragileak definitzen diren– eragile horiek legearen printzipioak errespetatu behar dituztela adierazten duen aipu bat txertatzea proposatzen du irizpenak. Proposatutako idazkuntza:

“3. Lege honi dagokionez:...c) Lankidetzak eta elkartasun-eragileek Lankidetzarako eta Elkartasunerako Lege honek oinarri dituen printzipioak errespetatu beharko dituzte”.

Formulazio hori ez da egokia, murriztailea izan baitaiteke, eta esku hartzen duten eragileek printzipioak betetzen direla egiaztatzeko prozesua ere eztabaidagarria izan daiteke. Aurreproiektuaren 15.2. artikuluan, ordea, non lankidetzak eta elkartasun modalitateei buruz hitz egiten den, euskal sektore publikoak zuzenean edo beste eragile batzuen bidez burututako jarduketek legearen helburu eta printzipioekin bat etorri beharko dute. Puntu hori, aldiz, objektiboki egiaztatu daiteke esku-hartzearen azterketa teknikoaren bidez. 3.1.a) artikulua idazkuntza osatzeko –non helburuak aipatzen diren, ez, ordea, printzipioak–, honela geratzen da azken idazkuntza:

² Ikusi NBEren Laneko Nazioarteko Erakundearen hainbat erreferentzia: <https://www.ilo.org/global/topics/decent-work/lang--es/index.htm>

(...) *Honako hauek dira lankidetzaren eta elkartasun-eragileak: beren gaitasunetatik, baliabideetatik eta erantzukizun espezifiko eta bereizietatik lege honetako helburuak eta printzipioak betetzen laguntzen duten erakundeak, publikoak edo pribatuak, tokikoak, nazioak edo nazioartekoak direla ere.*

Aplikazio-esparruari dagokionez, zehazki 2.2. artikuluan, eragile sindikalei egiten zaien aipu espezifiko gehitzea iradokitzen da. Zioen azalpenean sartzearekin koherentea izanik, arau-arloan garrantzirik ez duen aldaketa hori onartzen da.

Helburuei dagokienez (4. artikulua) b) letran “laneko” dimentsioa justizia globaleko terminotan txertatzea iradokitzen du irizpenak. Ez da egokitzat jotzen ekarpen horri ekitea, laneko dimentsioa justiziaren dimentsio ekonomikoan sartuta baitago zalantzarik gabe. Ez aipatzeak ez dakar inolako murrizketarik laneko eta itxurazko lana lortzeko eskubideak zabaltzeko ekarpenean, giza eskubidearen eta justiziaren funtsezko elementu ekonomikoak baitira. Azkenik, aipatzekoa da lau dimentsioak (ekonomikoa, soziala, generokoa eta ingurumenekoa) entitate sozial eta instituzionalen kontsulta-prozesuan adostu zirela, eta lehentasunezko ez-baztertzaila gisa definituak izan zirela.

Irizpenak proposatzen du **5. artikuluan** legearen jarduketa-printzipioen artean sartzea “lankidetzaren erakundearen eta gizarte-sarearen sendotzearen sustapena”. Ekarpenean hori ez da egokitzat jotzen, “sustapena” ez baita printzipio bat baizik eta funtzio edo jarduketa konkretu bat. Dena den, eragileen sendotzea gehiago nabarmentzeko REAS Euskadiren ekarpenari jarraipena eginez, aurreproiektuaren hirugarren bertsioan sartu ziren jada idazkuntza-hobekuntza batzuk. Horrela elementu hori bilduta dago i) euskal sektore publikoaren funtzioen artean (zehazki 7.c artikuluan) lankidetzaren eta elkartasun-eragileen gaitasunak sendotzeari erreferentzia eginez, eta ii) eta jardueraren modalitateen artean “ezagutza sortzea” idatz-zatian (15.4. d artikulua). Memoria laburrean azaldu ziren hobekuntza horiek.

6. artikuluari (lehentasunezko ikuspegiak) dagokionez, irizpenak a) letran iradokitzen du lan-eskubideak onetsitako giza eskubide gisa barnean hartzea. Horri dagokionez, aipatzekoa da lan-eskubideak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletan (bigarren belaunaldiko eskubideak ere deitzen zaie) bilduta daudela. Horrela behar duenez, giza eskubideen nazioartean onetsitako izendapena biltzen du aurreproiektuak, eta, hori horrela, ez da ekarpena sartzea onartzen.

Artikulu horretan bertan “*garapen sozio-laboraleko*” ikuspegi berri bat (f) sartzea iradokitzen da. Aurrekontuaren hirugarren bertsioarekin batera zihoan memoria laburrean azaldu zenez, ez da egokitzat jo ez ikuspegiak, ez modalitateak zerrenda bakar eta baztertzaila gisa planteatzea, eta aurreko 1/2007 legeak gabezia hori zuten, hain zuzen ere. Lege honek irauteko asmoa du eta adostasun nagusiak markatzen ditu, baina betiere irekia dago mundu aldakor honetan garrantzitsuak diren ikuspegi berriak garatzeko posibilitatera. Azalpen-memoria laburrean nabarmendu zen bezala, aurreproiektuan aurreikusitako ikuspegiak dira gaur egun euskal lankidetzaren osoarentzat esanguratsuenak direnak.

III. kapitulua. Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politikaren plangintza eta modalitateak:

Lankidetzaren eta elkartasun modalitateei dagokienez (15. artikulua), sindikatuak izaera pribatuko erakunde bezala esplizituki aipatzea proposatzen da, haien bidez euskal sektore publikoak lankidetzaren eta elkartasun-jarduketak burutuko dituen izaera pribatuko erakunde bezala, alegia. Ekarpene hori ez da barnean hartzen ulertzen delako sindikatuak gaur egun gobernu kanpoko beren erakunde propioen bidez ari direla jarduten elkartasunaren esparruan. 15.2 idatz-zatiak ez du eragile guztien zerrenda zehatzik egiten, eta gaur egun arte zeregin garrantzitsuena izan dutenak aipatzen dira. Euskal lankidetzaren publikoaren 35 urte hauetan sindikatuak ez dira berez eragile nabarmen bat izan, eta, aitzitik, gobernu kanpoko erakunde propioak sortu dituzte elkartasunaren esparruan jarduteko. Dena den, artikulua idazkuntzak aurreikusten du “beste erakunde publiko edo pribatu” batzuen bidez burutu ahalko direla, non sindikatuak barnean hartuta egongo diren.

15. artikulua horri berari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpenak adierazten du *“zuzeneko lankidetzaren osagarritasunaren eta efizientziaren printzipioei erantzun behar diela, bikoiztasunak saihestuz, eta lankidetzaren beste modalitate batzuen antzeko ikuskapen- eta justifikazio-prozedurei jarraitu”*. Gainera, kezka adierazten dute zuzeneko lankidetzaren kontzeptu- edo portzentaje-muga bat zehazten ez delako.

Aurreproiektuaren hirugarren bertsioarekin batera doan memoria laburrean azalduenez, ez da egokitzat jotzen Administrazioek zuzeneko lankidetzaren mugatzea. Administrazioen jarduketarako koherentziaren, osagarritasunaren eta efizientziaren printzipioak zabal jasota daude 5. artikuluan. Printzipio horiek betetzeko, 14.4. artikuluan ezartzen da Administrazio bakoitzak bere plangintzaren bidez zehaztu ahalko dituela aurreikusi dituen helburuak lortzeko egokienak diren modalitateak. Gainera, azalpen-memorian zabal azaldu zenez, zuzeneko lankidetzaren –funtsean lankidetzaren teknikoaren ekintzen eta garapenerako politiken koherentziaren sustapenerako ekintzen bidez, besteak beste, zehaztutakoa– funtsezkoa da lankidetzarako eta elkartasunerako politika ezartzeko. Azkenik, zuzeneko lankidetzaren ikuskapen- eta justifikazio-prozedurei dagokienez, zuzeneko lankidetzaren prozedurak zehazten diren azalpen-memorian adierazitakoa gogorarazi dezakegu, konkurrentzia-prozeduren bidez emandako dirulaguntzek bezainbeste kontrol edo kontrol gehiago gaintu behar baitituzte.

IV. kapituluak. Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoaren baliabideak eta gaitasunak:

Oso modu positiboan balioesten da 17. artikuluan *“legeak Errenta Nazional Gordinariaren % 0,7aren helburu esplizitu hori biltzea, zeina NBEk herrialde bakoitzak Garapenerako Laguntza Ofizialera egiten dituen ekarpenetarako adostutako erreferentzia den”*. Haatik, nazioarteko konpromisorako Euskadiren ekarpenean aurrera egite aldera, ekarpen hori EAEko esparruan eta ez estatuko esparruan aztertzearen posibilitatea gomendatzen da. Horri dagokionez, komeni da jakinaraztea arauaren organo sustatzaileak proposamen horren balorazioa egin duela eta euskal ekonomiarako % 0,7aren helburuaren erreferentzia ez aldatzea erabaki duela. Aldaketa hori ez txertatzeko arrazoiak memoria laburraren 18. orrian argudiatzen dira. Horrekin batera, Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordearen txostenak Errenta Nazional Gordina erabiltzeko egokitasuna berresten du

toki-erakundeentzat ezinbesteko eskakizunik ezarri gabe. Iradokizun berri horren ondorioz eta kontuan izanda Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostenak memoria laburrean jada argudiatutako zailtasunei soluziorik eskaintzen ez diela, amaitutzat ematen da puntu hori.

Bestalde, 17.4 artikuluari dagokionez, zeinean aurrekontuen bidez lankidetzaren politikara bideratutako baliabide ekonomikoak “*pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenekin gehitu ahal izateko*” posibilitatea biltzen den, irizpenak uste du ekarpen pribatu batek ez lukeela ezein kasutan ere eragin behar ekarpen publikoaren murrizketarik. Horrenbestez, artikulua hori honela zehaztea proposatzen da (beltzez idazkuntza berria):

(...) 4. Aurrekontu bidez lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikora bideratutako baliabideak pertsona fisiko edo juridikoetatik, eta estatuko eta nazioarteko erakunde eta instituzio publiko edo pribatuetatik datozen ekarpenekin gehitu ahalko dira, eta horrek ez du ezein kasutan ere euskal erakunde publikoek Garapenerako Laguntza Ofizialera egindako ekarpenaren gutxikuntzarik eragingo”.

Egokitzat jo da ekarpen hori, eta, horrenbestez, aurrekontuaren laugarren bertsioari gehitu zaio. Haatik, aurreproiektuan erabilitako izendapenarekin koherentea izanik, honela geratuko litzateke idazkuntza: “(...) Ekarpen horiek ez lukete ezein kasutan ere inplikaturiko euskal sektore publikoak garapenerako laguntza ofizialera egindako ekarpenaren gutxitzerik”.

17. artikulua 3. zenbakian, irizpenak idazkuntza honela osatzea proposatzen du:

*3.– Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek bere guztirako gastu kontsolidatuaren % 0,7 urtero bideratuko du lankidetzarako eta elkartasunerako politikara, **lege hau onartzen den unetik**” (...)*

Horri dagokionez, adierazi behar da aurreikuspen hori ez dela beharrezkoa, aurreproiektuaren azken xedapenetako hirugarrenak aurreikusten baitu bertan arautzen diren puntuei ekin beharko zaiela legea EHAAr argitaratu eta hurrengo egunean.

V. kapitulua. Ezagutza, ikaskuntza eta komunikazioa:

Azkenik, komunikazioari buruzko 20. artikuluan irizpenak iradokitzen du komunikabide publiko eta pribatuei buruz lankidetzaren eta elkartasun-eragile gisa egiten den aipu esplizitua kentzea. Iritzi horren aurka, organo sustatzaileak uste du komunikabideak lankidetzarako eta elkartasunerako politikarako funtsezko eragileak direla. Jendaurrean erakusgai jartzearen izapidean parte hartu duten hainbat eragilek partekatutako iritzia da hori, eta aurreproiektuaren balio positibo gisa adierazten dute inkorporazio hori. Mezu positiboan zabalkuntza, kanpainen bidez gauzatutako lankidetzaren eta beste hezkuntza-mekanismo batzuk funtsezkoak dira euskal gizartean balio solidarioak zabaltzeko. Ulerkera horri jarraikiz, eta ulerkera hori aurreikusten duten beste lege eta araudi batzuei ere jarraikiz (hala nola emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea), komunikabide publiko eta pribatuak espezifikoki lankidetzaren eragile gisa aipatzean aurreproiektu honek lortu nahi duena komunikabide horiek inplikatzea eta aurreikusitako elkartasun-helburuak lortzeko daukaten funtsezko zeregina onartzea da.

5. EUSKADIKO TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEAREN TXOSTENAREN BALORAZIOA

2023ko urtarrilaren 3an, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91.1 artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta, txostena eskatu zitzaion Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari (aurrerantzean, Txostena), eta 2023ko otsailaren 6an jaso zen txosten hori.

Txostenak aitortzen du, aurreproiektua egiterakoan, organo sustatzaileak arreta berezia jarri duela euskal sektore publikoa osatzen duten administrazioei betebeharrak ezartzerakoan. Gai hori garrantzitsua da; izan ere, arau-esparru berri bat ezartzeko asmoari erantzuten dio egiaz, EAEko administrazio publikoek ikus dezaten protagonismoa dutela lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoa gauzatzean, beren eskumen-esparrua errespetatuz betiere.

Horri dagokionez, esan behar da 1/2007 Legeak 14. artikuluan aipatzen dituela lurralde historikoetako administrazioen eta udalerrien eginkizunak, eta lankidetzeta-programak eta lankidetzeta-ekintzak egiteko ahalmena onartzera mugatzen dela, arau-testu horren printzipioak, helburuak eta lehentasunak aintzat hartuta. Unceta irakasleak bere txostenean³ adierazi duenez, administrazio horiek ez ziren erabat aintzat hartuak edo interpelatuak sentitzen 1/2007 Legearen aldetik. Zailtasun horretaz jabeturik eta jakinda oso garrantzitsua dela aurrera egitea aurreikusitako helburuak betetzeko eraginkorragoa izango den erakunde-arkitektura berria eraikitzeko, 2021eko maiatzaren 19an Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea osatzen duten erakundeei dei egin zitzaienten lege berriaren aplikazio-eremuari buruz eztabaidatzeko. Bilera hartan, euskal administrazioek erabaki zuten aurreproiektu hau elkarrekin egitea. 2021eko maiatzean lantalde egonkor bat osatu zen, eta hartan parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzako, hiru aldundietako, probintziako hiru hiriburuetakako, EUDELeke eta Euskal Fondoa elkarteko ordezkariak. Gainera, saio horietako batzuetan arlo juridikoan adituak diren pertsonak ere hartu zuten parte, haietako batzuk administrazio parte-hartzaileetako langileak. 2021eko maiatza eta iraila bitartean 5 lan-saio egin ziren, eta lantalde horrek parte hartu zuen, gainera, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen bidez ordezkaturako gizarte-sektorearekin egindako lan-saioetan (beste 4 lan-bilera 2021eko apirila eta uztaila bitartean).

Gainera, espedientean jasota dagoen bezala, beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidean, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeak alegazio-txostena egin zuen aurreproiektuari buruz. Txosten horretan positibotzat jo zen legearen aplikazio-eremua administrazioaren maila guztietara zabaltzeko ahalegina.

Arauaren aplikazio-eremua zabaltzeko nahiak zituen zailtasunez jabetuta, aurreproiektua egitean arreta berezia jarri zitzaion eskumenen gaiaren azterketari, eta, horretarako, kontsulta eta lan-saio espezifikokoak egin ziren adituekin. 1/2007 Legearen

³ Unceta Satrústegui, Koldo. (2020). “Informe sobre la ley de cooperación para el desarrollo del País Vasco”. Gasteiz. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

erreferentzia mugatua gainditzen du oraingo aurreproiektuak, eta bere gain hartzen du EAEko administrazioaren hiru mailen protagonismo partekatua eta berezia – administrazio bakoitzari aplika dakizkiokeen eskumen-araudiak errespetatuz betiere–. Aurrekoa bat dator EAEko arkitektura instituzional eta administratiboarekin, baina baita arau-testu berriaren orientazioarekin ere, garapen-helburuen aldeko aliantzak osatzea bultzatzen baitu.

Ondoren, Txostenaren ondorio espezifikoak aztertuko ditugu, hartan proposatutako ordenari jarraituz. Lehenengo biei eta laugarrenari aldi berean erantzungo zaie, lotura estua baitute:

1.ekarpena. *Garapenerako lankidetzaren «Kanpo Ekintza» delakoaren parte da (Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Kanpo Zerbitzuari buruzko 2/2014 Legearen 2.2 artikulua), eta barne hartzen ditu konstituzio-organismoak eta administrazio publikoak beren eskumenak erabiltzean egin ditzaketan jarduerak, kanpoan garrantzia dutenak.*

2.ekarpena. *Ikuspegi materialetik, proposamena egin duen Sailaren txostenek dioten bezala, maila instituzional bakoitzaren eskumenei kanpoan duten isla da garapenerako lankidetzaren arloko eskumena. Berez ez da eskumen autonomoa. (...)*

4.ekarpena. *Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, berariazko babes eman zaio toki-erakundearen garapenerako lankidetzari, hau da, haien eskumen propioa aintzatetsi da Euskadiko Toki Erakundearen buruzko Legearen 17. artikuluan, eta, gainera, horrekin loturiko ahalak zehaztu dira: garapenerako lankidetzaren politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.*

Txostenak lehen ondorioan adierazten duen bezala, eta Kanpo Ekintzari eta Kanpo Zerbitzuari buruzko 2/2014 Legearen 2.2 artikulua arabera, bai EAEko Administrazio Orokorrak, bai lurralde historikoak eta toki-erakundeak lankidetzaren jarduerak egin ditzakete, beren eskumenei kanpo-proiektzio gisa. Ildo beretik jo zuen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea onartzeko prozeduran emandako 92/2004 irizpenean.

Gainera, onartu berri den otsailaren 20ko 1/2023 Legeak, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoak, 35. artikuluan aitortzen du autonomia-erkidegoek eskumena dutela lankidetzaren arloan.

“35. artikulua. Lankidetzaren deszentralizatua.

1. Lankidetzaren deszentralizatua da autonomia-erkidegoek, beren eskumenei esparruan, garapen jasangarrirako lankidetzaren arloan egiten dituzten programen, proiektuen eta ekintzen multzoa, bai eta toki-erakundeak eta foru-erakundeak (udalek, probintzia- eta foru-diputazioak, kabildeak eta uharteetako kontseiluek) garatzen dutena ere, lege honek berariaz onartzen duena. Lankidetzaren deszentralizatua da Espainiako garapen jasangarrirako lankidetzaren nortasun-ezaugarrietako eta indarguneetako bat, bai eta gizarte bakoitzaren elkartasun-adierazpena ere, eta nabarmen laguntzen du lankidetzaren sistema demokratikoagoa eta gobernantza ona izaten, osagarritasunetik eta

erantzunkidetasunetik abiatuta, eta administrazio horiek garapenerako lankidetzaren Espainiako sisteman zer eginkizun duten erakusten du, lege honen eta Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legearen bidez aintzatetsita baitaude”.

Araudi horiei jarraiki, euskal administrazioaren maila guztiek partekatzen dute lankidetzaren arloko eskumena. Aurreikuspen horretan oinarrituta egin da aurreproiektua, eta hala berretsi zuen Saileko Aholkularitza Juridikoaren Txostenak. Espedientean jasota dago txosten hori. Horren harira, arlo horretako eskumena euskal administrazioaren hiru mailek partekatzeak ez du urratzen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (aurrerantzean, ETEL) xedatzen duena, lege horren 17.1.37 artikulua toki-erakundeei ematen baitie “lankidetzaren arloko politikak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eskumena”.

Lankidetzaren arloko eskumen bat berariaz aipatzen duten beste autonomia-estatutu batzuek ez bezala, edo eskumen hori kanpo-ekintzaren barruan hartzen dutenek ez bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak (EAEE) ez du horrelako aipamenik egiten. Hala ere, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (aurrerantzean, TAOL) 59. artikuluan xedatzen duenez, herri-administrazioen jardueran koherentzia ziurtatzearen, herri-ekintzako arloak arautzen dituzten autonomia-erkidegoko legeek Gobernu Kontseiluari esleitu ahal izango diote toki-administrazioaren jarduera, eta, Euskadiren kasuan foru-administrazioarena, koordinatzeko ahalmena, bere eskumenak baliatuz.

Ondorioz, hiru administrazio-mailek dituzte eskumenak lankidetzaren arloan. Eskumen horiek ezin dira eskusibotzat jo, ekintza konkurrenteak eta osagarriak dituen politika baten adierazpenaren parte baizik. ETELeke planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eskumena toki-erakundeei esleitzeak ez du esan nahi EAeko administrazio orokorrak bere eskumenak eskuordetu dituenik. Azkenik, TAOLen 59. artikulua araberan, beheragoko mailetako jarduera koordinatzeko ahalmena du maila autonomikoak.

Gai hori argitze aldera, aurreproiektuan (zioen azalpenean, IV. apartatuan) gai horretako eskumenari buruzko aipamen bat sartu da. Honela dio testu berriak:

“IV

Aurrekoan ez bezala, lege honek euskal sektore publiko osoari eta gainerako eragileei dei egiten die politika solidarioaren alde. Horretarako, aplikazio-eremua euskal administrazio publikoaren hiru mailetara zabaltzen du –bakoitzaren eskumen-esparruan eta bakoitzaren autonomia eta autoantolamendua errespetatuz–.

Sektore publikoaren definizioa Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean aurreikusitako baldintzen arabera egin da. Lege horretan ezartzen denez, euskal sektore publikoaren parte izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak, toki-administrazioak eta horien administrazio instituzionalak eta lehen aipatutako edozein administrazio publikoren mendeko gainerako ente instrumentalak. Ildo beretik, eta aipatutako legearen 4. artikulua ezarritakoaren arabera, lege honen

sektore publikoaren eta aplikazio-eremuaren parte dira euskal sektore publikoak eratutako nortasun juridiko propioa duten erakundeak, industria- edo merkataritza-izaerarik ez dutenak, interes orokorreko premiei erantzuteko berariaz sortuak eta lankidetzaren eta elkartasun-arloko jarduerak egiten dituztenak. Hala nola EUDEL–Euskadiko Udalen Elkarteak eta Euskal Fonda–Euskadiko Toki Erakunde Lankideen Elkarteak.

Arauaren aplikazio-eremua Euskadiko hiru administrazio-mailetara zabalduta, esparru komun bat finkatu nahi da lankidetzaren eta elkartasunaren arloan eskumena partekatua duten euskal administrazio publikoentzat. Kanpo Ekintzari eta Kanpo Zerbitzuari buruzko 2/2014 Legearen 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, Lurralde Historikoen eta Euskadiko toki-erakundeek beren eskumenen kanpo-proiektzio gisa egin ditzakete arlo horretako jarduerak. Horrela, eskumen horiek ezin dira modu isolatuan interpretatu euskal administrazioaren maila bakoitzaren eskusibotzat, baizik eta ekintza konkurrenteak eta osagarriak dituen politika baten adierazpenaren zati gisa.

Jarduketa eta politika horiek beren artean koherenteak izan daitezkeen, euskal sektore publikoak, oro har, eta, bereziki, euskal administrazio publikoek, arau-esparru berri bat dute, bakoitzaren eskumenak, autonomia eta ahalak aitortzen dituen eta erakunde-arkitektura berri baten eraketan aurrera egiten duena".

3.ekarpena. *Garapenerako lankidetzarako politikaren plangintzari dagokionez, 2/2014 Legearen 11.2 artikuluan bigarren paragrafoaren arabera, «Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak euren autonomia-erkidegoek zehaztutako kanpo-ekintzako plangintza-tresnen mende egongo dira». Hori bai, erakunde erkideen benetako eskumen-titulua da, nahiz eta lege bakar batean aintzatetsi".*

Hain zuzen ere, Txostenak aipatzen duen bezala, 2/2014 Legeak 11.2. artikuluan adierazten du maila autonomikoak zehazten dituen plangintza-tresnen mende daudela udalerriak eta lurralde historikoak. Horren ondorioz, eta adierazitakoaren ildotik, aurreproiektuaren laugarren bertsioak eskumen hori berariaz aipatzen du plangintzari buruzko 14. artikuluan. Honela dio testu berriak:

1.— *EAEko Administrazio Orokorrak, euskal sektore publikoaren jardueran koherentzia ziurtatzearen, ekintza publikoaren helburuak eta lehentasunak finkatu ahal izango ditu lankidetzaren eta elkartasunaren arloan.*

5.ekarpena. *Horrenbestez, aurreproiektuaren eduki materialak ez dira automatikoki aplikatuko udal-autonomiaren kaltetan. Hala, ezin izango da koordinazioaz hitz egin, ezin da alde aurreko txostenik egin, eta (4., 5. eta 6. artikulua) udalerrien ekintzaren adierazle baino ez dira izango.*

Txostenaren arabera, aurreproiektuaren eduki materialetako batek (koordinazioa eta aurretiazko txostenak) kalte egin diezaiolke udal-autonomiari, eta beste eduki batzuk (helburuak, printzipioak edo lehentasunezko ikuspegiak) udal-ekintzaren gidari baino ez

dira izango. Organo sustatzailea, aurreko azalpenen argitan, ezin da bat etorri interpretazio horrekin.

Aurreko ataletan emandako arrazoibideari jarraituz, lehenik eta behin, esan behar da 1/2007 Legeak 2.2 artikuluan jada aurreikusten zuela honako hau: “lege honen printzipio, helburu eta lehentasunak jarraitu beharrekoak izango dira lurralde historikoetako foru-organoek eta toki-administrazioek garapenaren arloan aurrera eramaten dituzten jardueretan”. Txostenean adierazitakoaren aurka, non esaten baita aurreproiektuaren definizio nagusiak (3. artikulua, ezaugarriak; 4. artikulua, helburuak; 5. artikulua, printzipioak eta 6. artikulua, lehentasunezko ikuspegiak) printzipioen adierazpenak direla, udal-eskumenari kalterik egin gabe. Organo instrukzio-egileak azalpen-memorian adierazi zuenez, autonomia-erkidegoko legeriak helburu eta printzipio operatibo komunak ezar ditzake administrazio guztientzat, aurreikuspen horiek bat baldin badatoz arlo horretan jarduerak gauzatzeko nolabaiteko koherentzia bermatzeko bidezko irizpidearekin. Baieztapen hori indartzeko, Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren Txostenak honako hau dio: “...gure ustez, lege autonomiko batek, autonomia-erkidegoaren eremuan garapenerako lankidetzaren politika koordinatua, koherentea eta eraginkorra bermatzeko, xede horretarako irizpide komunak ezar ditzake”. Kontu hori berretsi egiten da, gainera, TAOLen 59.1. artikuluari buruz aurreko ataletan jada aipatutakoarekin.

Bestalde, Txostenak zalantzan jartzen ditu Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordeari esleitutako koordinazio-eginkizunak (aurreproiektuaren 13. artikulua); izan ere, “koordinazioak” berekin dakar “*koordinatzen duenak koordinatuarekiko*” nagusitasun-jarrera izatea zuzendaritzaren zentzuan. Azpimarratzekoa da artikulua horren idazketan erakundearen arteko lankidetzarako beharrezko mekanismoak aipatzen direla, politiken koherentziaren alde aurrera egin ahal izateko. Eginkizunak zehaztean ez da inola ere lortu nahi Batzordea atxikita dagoen organoak nagusitasunezko jarrera ezartzea gainerako erakundeekiko. Euskal sektore publikoaren parte diren erakundeak eta administrazioak ordezkaturik dauden organoa da Batzordea, eta lankidetzaren eta baterako partaidetzaren ardatz hartuta daude idatzita haren eginkizunak (artikulu bereko 4. paragrafoa). Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (7.2 eta 10.2 artikulua, eta abar) xedatutakoaren arabera, toki-erakundeek beren artean koordinatu behar dituzte beren eskumenak, eta bereziki gainerako herri-administrazioekin, bai tokiko jarduerak nahiz zerbitzuak toki-erakunde bakoitzaren interesen gaitetikoak direnean, bai herri-administrazioen interesak nabarmen ukitu edo baldintzatzen dituztenean, zein herri-administrazio horien interesekin bat datozen edo osagarriak direnean. Nolanahi ere, lehen esan bezala, aipatutako lege horren 59.1 artikulua, politiken koherentzia ziurtatzeko, autonomia-erkidegoari ematen dio koordinazio hori egiteko ahalmena.

Aurreko araudian oinarrituta eta elkarlanerako espazio bat sortzeko asmoarekin, justifikatuz jo da oharkizuna, eta, horregatik, ez da aldaketarik egin artikulua idazketan.

Azkenik, puntu honetan, Txostenak zalantzan jartzen du 11.4 artikulua letratan Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari esleitzen zaion eginkizuna («Aldez aurretik eta nahitaez egitea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore

publikoaren lankidetzaz- eta elkartasun-arloko xedapen orokorreari eta urte anitzeko plangintza-proposamenei buruzko txostena») aplikagarria ote den lurralde historikoen edo udalerrien kasuan. Horri dagokionez, azaldu behar da “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa” aipatzen denean ez direla aipatzen ez lurralde historikoak ez udalerririk, baizik eta “*Eusko Jaurlaritzari lotutako edo haren mendeko sailak, organismoak eta erakundeak*”. Aurreproiektuaren izenen eta 3/2022 Legea egokitzearen kontu hori azaldu zen memoria laburrean, eta, beraz, ez da aldatu aurreproiektuan.

6.ekarpena. *Antolaketari dagokionez, ezin da betebehar espezifikorik ezarri, hala nola udaleko langile publikoei arlo horretan prestakuntza emateko eskakizuna.*

Txostenaren arabera, toki-erakundearen autonomiari eragiten zaio, 7.i) artikuluan aurreikusitako funtzioa ezarri dela uste baita. Honako hau aurreikusten du artikulua horrek:

“Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten administrazioek eta erakundeek beren burua antolatzeko ahalak erabiliz eta autonomia osoz gauzatuko dituzte lankidetzaz- eta elkartasun-arloko eskumenak, hala nola: (...) beren zerbitzura dauden langileei zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak bultzatzea”.

Horri dagokionez, azaldu behar da idazketak jada jasotzen duela administrazioek “beren burua antolatzeko ahalak erabiliz eta autonomia osoz” beteko dituztela funtzio horiek, eta, beraz, ez da zuzentzat jo funtzio hori administrazioentzat betebeharra dela dioen baieztapena. Horregatik, atal honetan ez da inolako aldaketarik egin aurreproiektuan.

7.ekarpena. *Alderdi ekonomikoari dagokionez, proiektuak ez du eraginik udal-ogasunean, eta, beraz, ez da beharrezkoa ETELen 18. artikuluko berariazko eranskina egitea.*

Azkenik, IV. kapituluari dagokionez (Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politikaren baliabideak eta ahalmenak), Txostenak berak azpimarratzen du ulertzeko modukoak direla arauak aurreikusi dituen konpromiso ekonomikoak, adierazgarriak edo propositiboak diren aldetik, eta ez aginduzkoak. Horregatik, ondorioztatu du ez dela beharrezkoa ETELen 18. artikulua aurreikusi duen berariazko eranskina egitea. Ondorioz, ez da berariazko eranskinik egin konpromiso ekonomikoetarako.

6. KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN “KONTROL EKONOMIKO ETA NORMATIBORAKO NAHITAEZKO TXOSTENAREN” BALORAZIOA

Apirilaren 5ean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (aurrerantzean, KEB) kontrol ekonomiko eta normatiborako txostena (aurrerantzean, Txostena) eman zuen lankidetzarako eta elkartasunerako euskal legearen aurreproiektuari buruz.

Txosten horren hirugarren apartatuan, ohar eta gomendio zehatzak ematen dira eta eduki hauek aztertzen dira:

- A) Ekimena sustatzeko eskumenak
- B) Prozedurari buruzkoak
- C) Testuari eta edukiari buruzkoak
- D) Antolaketarekin lotutako alderdiak eta Administrazio Orokorraren eta administrazio instituzionalaren ekonomian eta aurrekontuan duen eragina

Memoria honetan oharrei heldu eta erantzungo diegu, txostenak aipatzen dituen hurrenkera berean. Testuaren ulermena errazteko asmoz, oharrak eta erantzunak zenbakituko dira. Ohartarazi behar da balitekeela zenbakiak txostenekoekin bat ez etortzea, paragrafo batzuek ohar bat baino gehiago jasotzen zuten eta.

A analisia. Ekimena sustatzeko eskumenei buruz

Lankidetzaren arloko eskumenari dagokionez, txostena ados dago justifikazio-memorian eta sailaren txosten juridikoan adierazitakoarekin, alegia, lankidetzaren arloko eskumena ez dagoela berariaz jasota EAEko Autonomia Estatutuan; horrek ez du «*eragozten Euskadik arlo horretako jarduketak egin ahal izatea bere eskumenen kanpoez gisa (...)*». Baieztapen hori ABJK egun indarrean dagoen legea, 1/2007 Legea, izapidetzeko espedientean eman zuen 92/2004 irizpenean ere oinarrituta dago.

Araudia hiru administrazio-mailetan aplikatzeari dagokionez, Txostenean baieztatzen da sailaren txosten juridikoarekin bat datorrela; izan ere, aurreproiektuan zehar, «*ez da beti argi azaltzen parametro komunak ezartzeak zein kasutan ekar dezakeen esleitutako eskumen-esparruan maila bakoitzari dagozkion eskumenak eta erabakitze ahalmenak lausotzea*».

Izan ere, Txostenean ondorioztatzen da ez espedientean ez aurreproiektuaren artikuluetan ez dela jasotzen administrazio bakoitzari esleitutako eskumen-esparrurik edo eskumen-esparruaren analisi zehatzik. Hortaz, ezin da baloratu ez proposaturiko testuaren idazkera eskumenei buruzko aginduekin bat datorren ez baliabide ekonomikoen zer bolumen bideratu beharko litzatekeen maila bakoitzera.

A oharrerako erantzuna. Eskumenei buruz. Aurreproiektuaren xedea ez da administrazio-maila bakoitzari dagozkion eskumenak zehaztea; izan ere, lankidetzaren arloko eskumena administrazio-maila guztiek daukate aldi berean, modu partekatu eta koordinatuan. Halaxe jasotzen du Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 7.2 artikuluan; izan ere, bertan ezartzen da udalerriek, probintziek, uharteek eta gainerako lurralde-mailako toki-erakundeek autonomiaz eta beren erantzukizunpean erabiliko dituztela beren eskumenak, beti ere horiek programatu eta gauzatzekoan gainerako herri-administrazioekiko behar bezalako koordinazioa kontuan hartuz. Era

berean, 10.2 artikulua zehazten duenez, toki-erakundeek beren artean koordinatu behar dituzte beren eskumenak, eta bereziki gainerako herri-administrazioekin, bai tokiko jarduerak nahiz zerbitzuak toki-erakunde bakoitzaren interesen gaitetikoak direnean, bai herri-administrazioen interesak nabarmen ukitu edo baldintzatzen dituztenean, zein herri-administrazio horien interesekin bat datozen edo osagarriak direnean.

Duela gutxi otsailaren 20ko 1/2023 Legea, Garapen Jasangarrirako Lankidetzari eta Elkartasun Globalari buruzkoa, onetsi zen eta bertan ere ez da zehazten administrazio-maila bakoitzari esleitutako eskumen-esparrurik. Izan ere, lege horren zioen azalpenean hitzez hitz adierazten den moduan, *«autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen berezitasuna ezaugarri hauetan datza: haien ibilbidea, aliantzak sortzeko gaitasuna, nork bere lurraldean gizartearen partaidetza sustatzeko gaitasuna, gaitasun ekonomikoak eta sozialak, nork bere lurraldean daukan ezagutza aditua eta administrazioek berek eskumenak eta gaitasunak dauzkaten politika publikoko eremuetan duten ezagutza. Hori sistemaren aktibo bat da, izaera pluralagoa, deszentralizatuagoa eta lurraldeen eta gizartearen partaidetzara irekiagoa ematen baitio»*.

Azkenik, txostenak aipatutako moduan ez espedientean ez aurreproiektuaren artikuluetan administrazio bakoitzari esleitutako eskumen-esparrurik edo eskumen-esparruaren analisi zehatzik ez jasotzeari dagokionez, adierazi behar da ezen, espedienteko azalpen-memorian jasota dagoen moduan, Agustín García Ureta Euskal Herriko Unibertsitate Publikoko administrazio-zuzenbideko katedradunak zenbait azterketa eta analisi egin zituela Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzaren eskumen-eremuari buruz. Azterketa horiek eranskin gisa jaso dira memoria labur honetan.

B analisia. Prozedurari buruz.

Txostenean adierazten da orain arte bete egin direla abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritako izapideak. Era berean, gogorazten da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aurreproiektuari buruzko irizpena eman beharko duela eta aldaketak egindakoan KEBi jakinarazi beharko zaizkiola.

C analisia. Testuari eta edukiari buruz.

C.1.a) oharra. Txostenean iradokitzen da aurreproiektuan «Hegoaldeko herrialdeak» aipatzean erabilitako terminologia eta horretaz aritzeko beste izen batzuk, hala nola herriak, populazioak, gizarteak eta eragileak, bateratzea.

C.1.a) oharrerako erantzuna. Ohar horri dagokionez, bidezkoa da aurreproiektuarekin datorren azalpen-memorian eman ziren azalpenak errepikatu eta zabalitzea. «Hegoaldeko herrialdeak eta lurraldeak» terminoa erabiltzen da garapenerako laguntza ofiziala (aurrerantzean, GLO) jasotzeko hautagarriak diren munduko eskualdeak aipatzeko, nahiz eta ez duten zertan planetako hego-hemisferioan nahitaez egon. Gaur egun, Ekonomia Lankidetzari eta Garapenerako Antolakundeko (aurrerantzean, ELGA) Garapenerako Laguntzaren Batzordeak (aurrerantzean, GLB) zehazten du urtero herrialde hautagarrien zerrenda. Hala ere, baliteke etorkizunean inguruabar hori

aldatzea, azken hamarkadetan ELGAN sartuta ez dauden herrialde «emaileen» kopuruak gora egin duelako. Egoera aldakor hori ikusita, aurreikustekoa da etorkizun hurbilean Nazio Batuen Sistemak zehaztuko dituela herrialde edo eskualde hautagarriak.

Hala, «Hegoaldeko herrialdeak» kontzeptua zabal erabiltzen dute Nazio Batuetako erakundeek eta atzean uzten ditu beste termino batzuk —haiek ere zehaztugabeak—, hala nola «hirugarren mundua», «herrialde azpigaratuak» eta «periferiako herrialdeak». Izan ere, termino horiek teoria garapenezaleei erantzuten diete eta zaharkituzat jotzen dira, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo nazioarteko testuinguruarekin lotuta daudelako. «Herrialdeak» bakarrik aipatu beharreen, legean «herrialdeak eta lurraldeak» aipatzea erabaki da; izan ere, munduko eskualde batzuk —haietariko zenbaitek euskal lankidetzarekin lotutako tradizio nabarmena dute eta «GLOetarako herrialde hautagarri»en zerrendan daude— gatazkan dauden eskualdeak dira, ez dauzkate aitortuta beren lurralde-subiranotasunak eta, beraz, zentzu hertsian ez dira «herrialdeak». Adibidez, horrelakoak dira Palestina eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa.

Nolanahi ere, «Hegoaldeko herrialdeak eta lurraldeak» terminoak ez du guztiz ebazten planetako eskualdeen konplexutasun geopolitikoa, ezta identitarioa ere. Munduan badaude estaturik gabeko herriak (zentzu hertsian herrialdeak ez direnak eta batasun nazional eskusiborik eratzten ez dutenak); badaude berariaz aitortutako «lurralderik» ez daukaten herriak (balitekeelako lurralde hori gatazkan egotea, herri palestinarrarekin gertatzen den moduan, edo diaspora ere «herri» horren zatitzat jotzen delako; adibidez, horixe gerta liteke euskal herriarekin⁴); eta badaude orobat herrialde baten edo batzuen barruan unitate identitarioak osatzen duten herriak (adibidez, indigenak edo herri ijitoa), eta kasu horietan ez da ezinbestekoa lurralde-mugak eta muga politiko-administratiiboak aitortuta egotea edo haien nortasun kulturala eratzeko adierazgarriak izatea. Hori dela eta, aurreproiektuan «herri» kontzeptua erabiliko da —batez ere zioen azalpenean eta artikuluen zati dogmatikoan— besteak beste hizkuntza, kultura, historia edo erakunde komunetan oinarritutako unitate identitarioen eraketaz hitz egiten denean, kontuan izanik horrelakoek ez dutela zertan bat etorri herrialdeetako mugetan aitortutako muga geografikoekin edo lurralde-mugekin. Kasu horietan, «herrialde» eta «lurralde» kontzeptuak erabiltzea mugatzailea litzateke.

«Herri» terminoa herrialdeetan, lurraldeetan edo herriguneetan bizi diren pertsonez hitz egiteko erabiltzen da. Aurreproiektuan «herritar» kontzeptua ere erabiltzen da beren eskubideak erabiltzen dituzten herriak, bai Euskadikoak bai Hegoaldekoak, aipatzeko. Hala ere, ez da egokitzat jotzen Euskadiko edo Hegoaldeko «herritarren» kontzeptua «herri» kontzeptuaren ordean erabiltzea; izan ere, herritartasuna erabiltzea (eskubideak aitortu, eskuratu eta erabat erabiltzea) bete beharreko helburua da oraindik ere munduko leku ugarian (baita Euskadin ere).

«Lankidetzaz-eragile»ak aipatzeari dagokionez, azpimarratzekoa da definizioa (zeinak ez baitu zalantzetarako lekurik ematen) aurreproiektuaren 1. artikulua hiruugarren apartatuan aurki daitekeela.

4 <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2022/el-lehendakari-asegura-que-diaspora-vasca-esta-viva-y-quiere-seguir-avanzando/>

Nolanahi ere, egokitzen jotzen da Txostenak terminoak bateratu beharri buruz egin duen oharra eta, hori dela eta, organo sustatzaileak testua sakonki berrikusi du, erabileran aurkitutako zenbait desberdintasun zuzendu ditu (adibidez, terminoak hurrenkera desberdinetan erabiltzea) eta behar ez diren terminoak ordeztu edo ezabatu ditu (adibidez, herriez hitz egitean ez da beharrezkoa zehaztea «herriguneetako» edo «herrialde eta lurraldeetako» herriak diren, juntagailu horrek ez daukalako azalpen-baliorik eta testuaren irakurketa zailtzen duelako).

C.1.b) oharra. Txostenean ondorioztatzen da zioen azalpenaren III. apartatuan Hegoaldeko herrialdeetatik eta lurraldeetatik zer jotzen den azaldu arren definizioa ez dela artikuluetan jaso.

C.1.b) oharrerako erantzuna. Gogorazi behar da Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidalitako aurreproiektuaren bertsioan jada aintzat hartu zela sailaren txosten juridikoko oharra eta, beraz, bai zioen azalpenean bai artikuluetan (zehazki, 1. artikuluen 4. apartatuan) Hegoaldeko herrialdeetatik eta lurraldeetatik zer jotzen den zehatzago azaldu zela.

C.2 oharra. Txostenean nabarmentzen da espedientea izapidetzean aurreproiektuaren edukia aldatu egin dela Euskal Sektorre Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearekin bat etorrarazteko. Hala ere, honako hau ondorioztatzen da:

- a) Aurreproiektuan 2.1 artikulurako proposatutako idazkera ez dator bat 3/2022 Legean xedatutakoarekin; izan ere, arau horrek aurreproiektuan jasotakoa baino askoz ere irismen handiagoarekin definitzen du euskal sektore publikoaren kontzeptua, 42. artikuluan. Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da euskal sektore publikoaren erabileraz eta «euskal sektore publiko»ari, «euskal administrazio publiko»ei eta antzekoei egiten zaien erreferentzia sistematikoez berriro hausnartzea.
- b) Proiektuaren 2.1.b) artikulua EUDEL eta Euskal Fondoa berariaz aipatzen ditu eta aipamen hori ez litzateke beharrezkoa, bi entitateak euskal sektore publikoko zati direlako, 3/2022 Legearen 4. artikuluekin bat etorriz.
- c) Espedientean ez da behar bezala justifikatu Euskal Herriko Unibertsitatearen berariazko aipamena. 3/2022 Legearen 4.2 artikulurako egokia den arren, justifikatu behar da zergatik aurreikusten den arauaren aplikazio-eremuan sartzea eta zergatik iruditzen duen nortasun juridiko independentea daukaten eta atxikipen-araubiderik ez duten beste erakunde publiko batzuk sartzea baztertzen dela.

C.2.a) oharrerako erantzuna. Egiatan, 3/2022 Legean euskal sektore publikoaren kontzeptuak (42. artikulua) aurreproiektuaren 2.1 artikuluan jasotakoak baino irismen zabalagoa dauka. Beren izaeratik eta beren ezaugarriengatik lankidetzaren eta elkartasuneko eragile izateko deia jasotzeko lehentasuna daukaten euskal sektore publikoko eragileak zedarriztatzeko asmoz, honela aldatu da 2.1 artikuluen idazkera:

«2 artikulua. Aplikazio-eremua

Honako hauei aplikatuko zaie lege hau:

1.– Euskal sektore publikoa, *lankidetzako eta elkartasuneko eragilea den heinean. Lege hauen ondorioetarako, honako hauek osatzen dute:*

(...)

d) *Lankidetzaren eta elkartasunaren eremuan jarduketak egiten dituen eta lege honen helburuei ekarpena egiten dien euskal sektore publikoko beste edozein erakunde.*

(...).

Aldaketa horrekin bat etorri, eta legean euskal sektore publikoaren zati bat bakarrik aipatzen dela argituta, zioen azalpena ere aldatu da, honela, hain zuzen:

«(...) Aurrekoak ez bezala, lege honek *bai* euskal sektore publikoari *bai* politika solidarioaren aldeko gainerako eragileei dei egiten die. Horretarako, aplikazio-eremua euskal administrazio publikoko hiru mailetara zabaltzen du —bakoitza bere eskumenen esparruan eta bakoitzaren autonomia eta autoantolaketa errespetatuz—.

«Euskal sektore publikoaren kontzeptua, lankidetzako eta elkartasuneko eragile gisa, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legea hartzen du erreferentziaz eta honako hauek osatzen dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, baita haien guztien administrazio instituzionala eta aipatutako administrazio publikoetako edozeinen mende dauden gainerako ente instrumentalak ere. Gainera, legeak berriaz zehazten du honako hauek izango direla sektore publikoaren zati lankidetzaren eta elkartasunaren eremuan: Euskal Herriko Unibertsitatea, EUDEL —Euskadiko Udalen Elkarte—, Euskal Fondoa —Euskal Toki Erakunde Kooperanteen Elkarte— eta nortasun juridiko propioa daukaten, euskal sektore publikoak eratu dituen, industria- edo merkataritza-izaerarik ez daukaten, interes orokorreko beharrak betetzeko berriaz sortu diren eta lankidetzaren eta elkartasunaren arloan jarduketak egiten dituzten beste erakunde batzuk».

Testuaren gainerako ataletan, «euskal sektore publiko»aren aipamena mantendu da, lege honen ondorioetarako 2.1 artikuluan definitutakoa baita. Arauaren organo sustatzaileak testuan «euskal sektore publiko» esaten den guztietan «lankidetzako eta elkartasuneko eragile den euskal sektore publiko» jartzeko aukera baloratu du, baina azkenean ez du beharrezkotzat jo; izan ere, 2.1 artikulua birformulazioak jada argitzen du zedarriztapen hori eta hain termino luze bat erabiliz gero zaila litzateke testua ulertzea. Gainera, ez da egokitzat jo «euskal sektore publiko» ordeztzen duen izendapen berri bat bilatzea —Txostenak iradokitzen duen bezala—, herritarrei nahasmendua sor liezaiekeelako eta ez litzatekeelako egokia izango termino «berriak» sortzea, kontuan izanik duela gutxi onetsitako 3/2022 jada sortu dituela eta 2.1 artikulua birformulazioak jada zehazten duela.

Analisi hau egiteko, Eusko Jaurlaritzak egindako azken legeak eta lege-proiektuak berrikusi dira:

- 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- Dirulaguntzen araubidea arautzen duen legearen aurreproiektua.

C.2.b) oharrerako erantzuna. Arauaren organo sustatzailearen ustez, egokia da EUDELen eta Euskal Fondoaren berriazko aipamena bere horretan uztea, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen zati direlako eta garrantzi handia daukatelako lankidetzako eta elkartasuneko udal-politikaren ezarketan. Berriazko aipamen horrek eragileon balioa nabarmentzea eta ikusgai egitea ahalbidetzen du. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da arau berri hau egiteko prozesuan hiru administrazio-mailek aktiboki parte hartu dutela eta egokitzen joan dela arauaren eskumen-esparrua 1/2007 Legekoarekin erkatuta zabaltzea⁵. Azkenik, adierazi behar da hizpide den artikularen [2.1.b) artikularen] idazkerak ez duela eragozten antzeko ezaugarriak dituzten beste erakunde batzuk arauaren aplikazio-eremuan sartzeko aukera.

Arestian azaldutako arrazoiengatik, apartatu honetan ez zaio ezer aldatu aurreproiektuari.

C.2.c) oharrerako erantzuna. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek oso zeregin garrantzitsua daukate lankidetzako eta elkartasuneko euskal politikan. Sortu zirenetik, akademiak eta unibertsitateek gizarte-errealitateari buruzko ezagutza kritikoa, profesionalen prestakuntza, ikerketa aplikatua eta gardentasun eta ebaluazioko ekintzak indartu dituzte, besteak beste. Gaur egun, bai unibertsitate publikoa bai Deustuko Unibertsitateak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kide dira. Aurreproiektu honetan, ezagutzari eta ikaskuntzari eskainitako kapitulu oso bat garatu da —horien barruan, kultura ebaluatiboa eta kontu-ematea sartzen dira, besteak beste— baita prestakuntzan eta ezagutza-sorketan ardaztutako jarduketako modalitate bat ere, zeinean unibertsitate-sistemako eragileek zeregin garrantzitsu bat daukaten, zalantzarik gabe. 3/2022 Legearen 4.2 artikularen arabera Euskal Herriko Unibertsitatea euskal sektore publikoaren zati denez, arauaren organo sustatzaileari garrantzitsua iruditu zaio berriaz aipatzea. UPV/EHU da unibertsitateko prestakuntzara, ikerketara eta sustapenera bideratutako baliabide publikoak kudeatzeko erantzukizuna daukan euskal unibertsitatea⁶, eta haren misioak eta balioek lotura estua daukate hizpide dugun legearen helburuekin.

3/2022 Legearen 4.2 artikularen arabera orobat euskal sektore publikotzat jo litezkeen beste erakunde batzuk berriaz aipatzeari dagokionez, d) apartatua sartu da 2.1 artikuluan.

C.3 oharra. Aurreproiektuaren 2.2 artikuluari dagokionez, gomendatzen da «*euskal sektore publikoari esleitutako aurrekontuarekin*» adierazpena aurreko paragrafoetan esandakoarekin bat etorraraztea. Bestalde, hirugarren apartatuan, gomendatzen da proposatutako idazkeraren ordean beste hau erabiltzea: «(...) euskal lankidetzako eragileek sustatutako lankidetzako eta elkartasuneko jarduketetan *zuzenean* parte hartzen duten (...)».

⁵ Ikusi xehetasun gehiago aurreproiektuari erantsitako azalpen-memorian eta memoria laburrean.

⁶ <https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritza-nagusia/eginkizuna-eta-ikuspegia>

C.3 oharrerako erantzuna. Argitzeko eta nahasmendurik ez sortzeko helburuarekin, aurreproiektuaren 2.2 artikuluan, «*euskal sektore publikoari esleitutako aurrekontuarekin*» adierazpenaren ordez «*euskal funts publikoekin*» adierazpena erabili da. Azken adierazpen hori aurreproiektuan zehar erabili da eta aurrekoa baino egokiagoa izan liteke.

2.3 artikuluan ez da «*zuzenean*» hitza sartu pertsona fisikoek euskal lankidetzageragileek sustatutako lankidetzako eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzeaz ari garenean; izan ere, ez du balio ezer argitzeko edo sailkatzeko eta, aitzitik, nahasmendua sor dezake pertsonak parte hartzen duten ekintzetan «*zuzeneko*» inplikazioa mugatuagoa denean, adibidez, kanpainetan, sinadura-bilketetan eta abarretan (batzuk aipatzearen). Definizio zabal horren xedea da herritarrek aldaketa-helburuetan eta lankidetzako eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzen ari direla eta erantzukideak direla sentitzea —arte hartzeko duten gaitasuna edonolako dela ere—. Gainera, 18. artikulua («*Lankidetzako eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzen duten Euskadiko pertsonak*») berriazko muga eta betebeharrak batzuk ezartzen ditu partaidetza aktiboetarako.

C.4 oharra. Txostenean gomendatzen da 3.2.a) artikuluko «*arnas luzekoa izatea*» adierazpenaren ordez «*denbora-proiektzio luzekoa izatea*» adierazpena erabiltzea.

C.4 oharrerako erantzuna. Gomendioa onartu da eta 3.2.a) artikuluko «*arnas luzekoa izatea*» adierazpenaren ordez «*Epe luzeko konpromisoa hartzea eta (...) bilatzea*» jarri da.

C.5 oharra. Txostenean, 7. artikuluari dagokionez, g) apartatua ezabatzea iradokitzen da, «*gardentasunaren eta kontu-ematearen arloa*» lege honetatik kanpo geratzen delako, bere arau sektorialek arautzen dute eta.

C.5 oharrerako erantzuna. Gardentasunaren eta kontu-ematearen arloa, herritarren partaidetza, plangintza eta ebaluazioa bezala, bere arau sektorialek arautzen dute. Horrek ez du esan nahi araudi horrek ezin dituenik barne hartu lankidetzako eta elkartasuneko politika publikoarenak ere badiren atribuzio gisa; izan ere, ez dute arautzen Txostenean aipaturiko arau sektorialetako bat ere eta ez daude haiek kontraesanetan. Gainera, 7.g) artikulua kasu zehatzean, gardentasunaren eta kontu-ematearen aipamenak badauka elementu bereizgarri bat, «*jarduten den herrialdeetako eta lurraldeetako herritarrak*» aipatzen dituelako. Aurreproiektuari erantsitako azalpen-memorian kontu horren garrantziaren berri ematen da: «*...lankidetzako eta elkartasuneko politika publikoen gardentasuna eta kontu-ematea aipatzen dira, kontuan izanik politika horretako jarduketak funtsean Hegoaldeko herrialde eta lurraldeetan burutzen direla. Aipamen hori aurreproiektuaren V. kapituluarekin lotuta dago (zehatz-mehatz, ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa eta komunikazioa) eta beste urrats bat eginarazi nahi du euskal herritarrengan ardaztuta dagoen administrazio publikoen jardueraren gardentasunari buruz badagoen araudiaz haraindi. Gardentasunari eta kontu-emateari dagokienez aurrera giteko kezka —batez ere Hegoaldeko*

populazioekin—⁷ hedatuki jasota dago gaiari buruzko nazioarteko zenbait akordiotan, adibidez, *Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpenean (2005)*, *Akkrao Ekintza Programan (2008)* eta *Garapen Eraginkorrerako Lankidetzaren aldeko Busango Aliantzan (2011)*» (19.-20. or.)⁸.

lido horretan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostenak (zeina espedientean jasota baitago) egokitzen du artikulua idazkera eta berariaz aipatzen du «*aurreproiektuaren bokazio modernizatzaile eta berritzaile, arloko organo eskudunen gardentasuna eta kontu-ematea barne hartzen baititu, beste kontzeptu batzuen artean (...)*».

Arestian azaldutako arrazoiengatik, apartatu honetan ez zaio ezer aldatu aurreproiektuari.

C.6 oharra. Txostenaren arabera, kontuan hartu behar dira txosten juridikoan aurreproiektuaren 8.2 artikulua c) eta d) apartatuei buruz emandako oharrak.

C.6 oharrerako erantzuna. Aurreproiektuaren «gobernuaren erabateko ikuspegiarekin» bat egiteko helburuarekin⁹, sailaren txosten juridikoak jarritako oztoppa eta KEBek Txostenean adierazitako iritzia gorabehera, bere horretan utzi da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren lankidetzari eta elkartasunari buruzko urte anitzeko planak Gobernu Kontseiluak onesteko xedapena. Aurreproiektuaren azalpen-memorian azaldu zen bezala, egokitzen da xedapen horri eustea. Izan ere, gainera, era berean jasota dago 1/2007 Legean: «XII. Legegintzaldiko egutegiak Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren arloko Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana plan sektorial eta ez-estrategikotzat hartzen duen arren, beharrezkotzat jotzen da kontuan izatea lege honek ezartzen dituen eraldaketa-helburuek Euskadiko eragile sozial eta instituzional guztien jarduketa behar dutela eta, beraz, Jaurlaritzako arlo eta sail guztiei deitzen dietela. Ikuspuntu horri jarraituz, beharrezkotzat jotzen da Gobernu Kontseiluak onestea arlo horretan Jaurlaritzaren urte anitzeko jarduketa-esparrua (20. or.)».

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluak euskal lankidetzaren eta elkartasunaren egoerari buruz egindako txostena Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran eztabaidatzearen [8.2.d) art.] egokitasuna zalantzan jartzeari dagokionez, azaldu behar

7 Gardentasunaren eta kontu-ematearen arloko erronkei buruzko informazio sakonagoa, besteak beste, honako hauetan aurki daiteke: Perez de Armiño, Karlos. (2017). «*La rendición de cuentas en la acción humanitaria*». Documentos de trabajo sobre acción humanitaria nº 5:

https://www.elankidetzta.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_y_normativa_ah/es_def/adjunto_s/Documento%20de%20Trabajo%20AH%20n%C2%BA%205.%20La%20rendici%C3%B3n%20de%20cuentas%20en%20la%20acci%C3%B3n%20humanitaria.pdf

Oxfam Intermon (2012). «*Las claves de Busán: Los próximos pasos de la Alianza Mundial para una Cooperación al Desarrollo Eficaz*»:

https://www.oxfamintermon.org/sites/default/files/documentos/files/Informe_oxfam_busan_eficacia_ayuda_cooperacion.pdf

8 Dokumentuak hemen daude eskuragarri: <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/34580968.pdf>; <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/49650200.pdf>;

9 Gobernuaren baterako ikuspegiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Europako Batzordeak emandako definizioa (https://knowledge4policy.ec.europa.eu/glossary-item/whole-government-approach%2%A0_en) edo 1/2023 Legearen 3. artikulua, garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzkoa.

da neurri horren bidez nabarmentasun eta garrantzi publiko handiagoa eman nahi zaiola politika horri. Azalpen-memorian jada argitu zen honako hau: «Txosten hori eta osoko bilkurako debatea aukera bikaina izan daitezke lankidetzako eta elkartasuneko politikaren inguruko eztabaida politiko eta parlamentarioa sustatzeko eta politika horren irismenak eztabaidatzea ahalbidetzen duen “momentu publiko” bat sortzeko» (28. or.). Arauaren organo sustatzailearen aburuz, kontu hori behar bezala justifikatuta dago eta, beraz, egokia da bere horretan uztea.

Arestian azaldutako arrazoiengatik, apartatu honetan ez zaio ezer aldatu aurreproiektuari.

C.6 oharra. Txostenean adierazten da ezen, onetsi nahi den legeak eta sailen arteko eskumen-aldaketek denboran irauteko asmoa dagoenez, Lehendakaritzaren aipamen zehatzaren ordeztu «... arloan eskumena daukan sail» formula erabili behar dela, testuko beste pasarte batzuetan bezala.

C.6 oharrerako erantzuna. Lehendakaritzaren aipamen zehatza bere horretan utzi da aurreproiektuan, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean erabilitako izendapenari jarraituz. Aurreproiektuan Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen koordinazioaz hitz egitean aipatzen da sail hori eta, arauaren organo sustatzailearen ustez, ezingo da gaiaren eta Gobernuko lehendakaritzaren arteko lotura hautsi.

Arestian azaldutako arrazoiengatik, izendapen horri eutsi zaio eta ez da aldaketarik egin.

C.7 oharra. Txostenean ondorioztatzen da espedientean Lehendakaritzaren erabakia jaso behar dela, zeinean egiaztatzen baita aurreproiektuaren 12. artikuluan garapenerako politiken koherentziaren (aurrerantzean, GJPK) arloarentzat aurreikusitako eginkizunak bat datozela sail horrek xedatutakoarekin.

C.7 oharrerako erantzuna. Espedientean jasota dago Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiko Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzaren alegazioa. Bertan, honako hau adierazten da: «*Aurreproiektuaren 12.1 artikuluan GJPKren definizio zabal bat jasotzen da eta hori bat dator “Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako politiken koherentziarako erreferentzia-esparrua” dokumentuarekin, zeina Gobernu Kontseiluak onetsi baitzuen 2016. urtean. Esparru horri jarraituz, Jaurlaritzaren sektore-politika horietako bakoitzaren ardura da politikok beste politika batzuetan, beste lurralde batzuetan, etorkizuneko belaunaldietan eta planetan eduki ditzaketan eraginak analizatzea. 12.2 artikuluan, GJPKren arloan Lehendakaritzari dagozkion eginkizunak ezartzen dira. Horri dagokionez, egokitzen jotzen da GJPKren arloko lidergoaren erantzukizuna gobernu-maila gorenean kokatzea, zehazki, politika sektorialak koordinatzeko organoan, hots, Lehendakaritzan».*

Hori dela eta, oharra zuzendutzat jotzen da.

C.8 oharra. Txostenean adierazten da aurreproiektuaren 12. artikuluan «finantzaketa-funts komunak» terminoa aipatzen dela funts horien kudeaketa-eredua zehaztu gabe eta funtsok administratzeaz arduratzen diren organoak definitu gabe. Gainera, gogorarazten

da 12. artikuluan xedatutako lankidetzatresnen ondoriozko konpromiso ekonomikoek aurrekontuei buruz indarrean dagoen araudia errespetatu behar dutela eta, hortaz, ekitaldi bakoitzean aurrekontuaren betearazpenarekin eta likidazioarekin bat etorrarazi behar direla.

C.8 oharrerako erantzuna. «Finantzaketa-funts komun» edo *pool funding* direlakoetan, «bi emailek edo gehiagok elkarrekin finantzatzen dute programa bat edo ekintza bat, aldeztatik adostutako helburuetan eta jakinarazpen-formatuetan oinarrituta». Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECIDek) agindutako azterketa¹⁰ baten arabera, zeinean zenbait herrialde finantzatzailerik buruzko analisi konparatibo bat egiten den, lankidetzatresna-mekanismo horiek bidea eman dezakete finantzaketa hobeto ardazteko eta laguntzen harmonizazioa, koordinazioa eta efizientzia areagotzeko. 12.2 artikuluan, non erakunde arteko lankidetzarako mekanismoei heltzen baitzaie, erakunde publikoen artean finantzaketa-funts komunak eratzeko aukera jasotzen da. 12.3 artikuluan, ezartzen da funts horiek lankidetzatresna-hitzarmenen bidez arautuko direla. Funts horiek sortzeko mekanismo juridikoek ezarriko dituzte kudeaketa-eredua eta administrazioaz arduratuko diren organoak, funtsaren eta zati diren erakundeen helburuen arabera eta dagokion lege-esparrua errespetatuz. Artikuluan ez da ezein funts komunaren sorketa arautzen; aitzitik, aukera hori ezartzen da.

C.9 oharra. Txostenean gomendatzen da 14.5 artikuluan aipatzea urte anitzeko plangintzetan bideragarritasun ekonomikoaren eta aurrekontu-bideragarritasunaren analisia barne har daitekeela.

C.9 oharrerako erantzuna. Gomendio hori ez da egokitzat jotzen. 14.5 artikuluan urte anitzeko planek barne har litzaketen edukiak xedatzen dira eta, besteak beste, «aurrekontu-aurreikuspenak» aipatzen dira. Urte anitzeko planen bideragarritasun ekonomikoaren eta aurrekontu-bideragarritasunaren analisia ezinbesteko elementua da, planak izapidetzeko prozesuan kontuan hartu beharrekoa, eta, ziurrenik, analisi horretan oinarrituta zehaztuko dira hizpide den artikuluan aipaturiko «aurrekontu-aurreikuspenak». Hala ere, ulertzen da analisi hori administrazio bakoitzaren urte anitzeko planen izapidetzeari datxekiola eta administrazio bakoitzak aurreikusi beharko duela, bere autogobernu-ahala eta autonomia-ahala erabiliz. Arestian azaldutako arazoengatik, horri dagokionez ez zaio ezer aldatu aurreproiektuari.

C.10 oharra. Txostenean gomendatzen da 15.2 artikuluan zehaztea jarduketak «*lege honetan ezarritako helburuekin eta printzipioekin bat etorritik*» eta gainerako antolamendu juridikoa betez egin beharko direla.

C.10 oharrerako erantzuna. Aipamen hori ez da jarduketak zuzendu behar dituzten printzipioei eta arauketari buruzkoa; aitzitik, euskal sektore publikoak jarduketak egiteko erabil dezakeen eragile-mota mugatzea du helburu. 15.1 artikuluan jada xedatzen da jarduketak eskuragarri dauden modalitate, tresna eta prozedura guztiek egiten direla eta horiek indarreko antolamendu juridikoarekin bat etorri behar dutela.

10 AECID (2013), «Análisis comparativo de instrumentos de financiación oficial a organizaciones de la sociedad civil en varios países financiadores». Hemen eskuragarri: https://www.aecid.es/galerias/ongds/descargas/Analisis_financiacion_oficial_OSC.pdf

Arestian azaldutako arrazoiagatik, horri dagokionez ez zaio ezer aldatu aurreproiektuari.

C.11 oharra. Txostenean eskatzen da 15.3 artikuluko «lagatako funts» kontzeptuaren irismena argitzea, ez datorrelako bat aurrekontuei buruzko legerian jasotako kontzeptuekin.

C.11 oharrerako erantzuna. «Beste administrazio edo erakunde batzuek lagatako funts»ak lankidetzaren eskuordetuan kokaturiko jarduketak egikaritzeko erabil daitezkeenak dira. Lankidetzaren hori laguntzaren eraginkortasunaren agendaren esparruan sortzen da¹¹ eta Garapen Jasangarrirako Lankidetzari eta Nazioarteko Elkartasunari buruzko 1/2023 Legean aitortuta dago erakunde batek edo gehiagok beste administrazio bati jarduketa bat egikari dezala agintzeko modu gisa. Jarduketa horiek egiteko, badaude dagozkien araudietan araututa dauden zenbait mekanismo, adibidez, kudeaketa-aginduak, funtsen sorketa edo lankidetzaren-hitzarmenak, batzuk aipatzearen. Ez da bidezkoa aurreproiektua aldatzea.

C.12.a) oharra. Txostenean gomendatzen da 18.2 artikuluan aipatzea kooperante profesionaltzat jotzen dela kanpoaldean lankidetzaren jarduketetan parte hartzen duen eta jarduketa sustatzen duten erakundeekin harreman juridikoa daukan pertsona fisikoa, *baldin eta jarduketa hori haren lehentasunezko helburuak betetzeko egiten bada*. Hona hemen ekarpenerako ematen den arrazoiak: helburua da ez jotzea kooperante profesionaltzat jarduketa horiekin zerikusirik ez daukaten objektu soziala duten erakundeekin (adibidez, banketxeekin) lankidetzaren eta elkartasuneko proiektuetan parte hartzen duten pertsonak.

C.12.a) oharrerako erantzuna. Gomendio hori ez da egokitzat jotzen. Kooperante profesionalaren definizioa Kooperanteen Estatutuan araututa dago; izan ere, hori da esparru arautzailea eta gaur egun berrikusten ari dira. Gainera, duela gutxi onetsitako 1/2023 Legeak honela definitzen ditu kooperanteak 44. artikuluan: «*nazioarteko erakundeekin kontura, Espainiako irabazi-asmorik gabeko instituzio edo erakunde publiko zein pribatuaren kontura edo azken finean irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat lan egiten duten aholkularitza-enpresen kontura harreman juridikoa, zerbitzuak emateko harremana, lan-harremana edo administrazio-harremana daukaten lankidetzaren-profesionalak diren pertsona fisikoak, ekintza humanitarioko jardueretan edo garapen jasangarrirako lankidetzaren aritzea helburu dutenak. Bai sektore pribatuarentzat (GGKE-entzat, fundazioentzat, elkarteentzat, aholkularitza-enpresentzat eta abarrentzat) bai sektore publikoarentzat (estatukoarentzat, autonomikoarentzat edo tokikoarentzat) lan egiten duten profesionalak jotzen dira kooperantetzat*». Beraz, ez da mugatzailea kasuan kasuko erakundearen izaerari edo objektu sozial nagusiari dagokienez.

Hori dela eta, ez da bidezkoa gomendioa onartzea.

¹¹ Lankidetzaren eskuordetuen modalitateekin eta esperientziekin lotutako elementuei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi: GLB/ELGA (2003): *DAC Guidelines and Reference Series, Good Practices Papers. Harmonising Donor Practices for Effective Aid Delivery. Chapter 6: Delegated Co-operation*. Paris: ELGAren Argitalpen Zerbitzua. www.oecd.org/dac.

C.12.b) oharra. 18. artikuluan orobat, txostenean gomendatzen da «boluntario» terminoaren ordez «lankidetzako boluntarioa» erabiltzea (18.3 artikulua), eta «prestakuntzaldian dagoen pertsona» terminoaren ordez, ostera, «prestakuntzaldian dagoen kooperantea» (18.4 artikulua).

C.12.b) oharrerako erantzuna. Organo sustatzailearen aburuz, artikuluan jada esplizitu egiten da, izenburutik bertatik, arauketak hizpide dituen Euskadiko pertsonak «lankidetzako eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzen dutenak» direla eta, beraz, ez da beharrezkotzat jotzen irakurketa zailtzen duen aldaketa hori egitea. Beraz, testua ez da aldatu.

C.12.c) oharra. Txostenean ondorioztatzen da 18. artikulua bosgarren apartatuan (zeinean xedatzen baita «*jarduketa sustatzen duten erakundeek eta pertsonak*» betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituen akordio bat sinatu behar dutela) zehaztu behar dela zer pertsona aipatzen ari diren.

C.12.c) oharrerako erantzuna. 18.5 artikuluan jada zehazten denez, lehenengo esalditik, «lehen aipatutako boluntarioak eta prestakuntzaldian dauden pertsonak» aipatzen ari direla, organo sustatzaileari nahikoa iruditzen zaio aldaketa hau egitea:

«(...)

5.– *Lehen aipatutako boluntarioek eta prestakuntzaldian dauden pertsonak lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoa bete behar dute. Nolanahi ere, jarduketa sustatzen duten erakundeek eta pertsonak horiek betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituen lankidetzak-hitzarmen bat sinatu beharko dute (...).*».

C.12.d) oharra. 18. artikulua bosgarren apartatuari dagokionez (non orobat jasotzen den lankidetzak-eragileek gaixotasun-arriskua, istripu-arriskua, aberriratzeko-gastuak eta erantzukizun zibila estaltzen dituen aseguru bat sinatzeko betebeharra daukatela), Txostenean iradokitzen da zehaztea aseguru horrek adostutako harremanaren esparruko eginkizunak betetzearen ondoriozko arriskuak eta gastuak bakarrik estaliko dituela. Gainera, adierazten da balitekeela indarreko legeriak ezartzea lankidetzak-eragileek beste gastu batzuk gain har ditzatela, adibidez, gizarte-segurantzaren kuotak, eta espedientean ez dela jaso gai horri buruzko hausnarketarik.

C.12.d) oharrerako erantzuna. Araudi aplikagarri guztiaren betetzea alde batera utzi gabe, aberriratzea barne hartzen duen aseguru bat kontratatzeko betebeharra berariaz sartzeko arrazoiaren oinarria da boluntarioei eta prestakuntzaldian dauden pertsonen buruz indarrean dauden araudiek ez dutela baldintza zehatzik ezartzen nazioarteko jarduketetarako. Esku-hartze motaren izaera eta gauzatzen den testuinguruak direla-eta, ezinbestekoa da berme gehigarri horiek xedatzea. Nolanahi ere, paragrafoa honela birformulatu da:

«5.– *Lehen aipatutako boluntarioek eta prestakuntzaldian dauden pertsonak lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoa bete behar dute. Nolanahi ere, jarduketa sustatzen duten erakundeek eta pertsonak horiek betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituen lankidetzak-hitzarmen bat sinatu beharko dute.*».

Jarduketa nazioartean egiten denean, lankidetzaz-eragileek pertsona horien aldeko aseguru bat kontratatu beharko dute, gutxienez gaixotasunekin, istripuekin, aberriratzearekin eta hirugarrenetik erantzukizun zibilarekin lotutako gastuak estaltzen dituen jardueran arituko den aldiaren.

C.14 oharra. 19.5 artikuluari dagokionez, Txostenean proposatzen da ezaugarri zehatzik (ez gizarte-, kultura- eta hizkuntza-ezaugarririk, ez adinik, ez dibertsitate funtzionalik) ez aipatzea eta horren ordez horrelakoak eta kontuan hartu beharreko beste batzuk biltzen dituen termino orokor bat erabiltzea. Era berean, adierazten da hedatutako dokumentu eta materialetan hizkuntzen koofizialtasuna bermatu beharra aipatu behar dela.

C.14 oharrerako erantzuna. Organo arduradunak kontuan hartu du egindako lehen oharra. Hala ere, askotariko kontzeptu horiek biltzen dituen termino orokor bat aurkitzea zaila denez eta kontzeptuon garrantzia kontuan hartuta, artikulua honela birformulatu da:

*«5.– Aurreko ataletan adierazitako dokumentuei eta materialei zabalkundea emateko, irisgarritasun-mekanismoak ezarriko dira eta aintzat hartuko dira, **besteak beste**, xede dituzten herritarren gizarte-, kultura- eta hizkuntza-ezaugarriak, adina eta dibertsitate funtzionala».*

Euskadin hizkuntza-koofizialtasuna erabiltzeari dagokionez, ohartaraztekoa da Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren nahitaezko txostenak aipamen positiboa egiten duela materialak herritarren gizarte- eta hizkuntza-errealitatera egokitzeari dagokionez eta ziurtzat ematen duela, berariaz aipatu beharrik gabe, hizkuntza-koofizialtasunaren arloan indarrean dagoen araudia beteko dela. Hortaz, ohar hori ez da kontuan hartu.

C.15 oharra. 20. artikuluari, «Komunikazioa» izenburukoari, dagokionez, Txostenean ohar hauek egin dira:

- a) Beharrezkotzat jotzen da «hedabideak» terminoa zehaztea; izan ere, hedabide publikoak ez ezik pribatuak eta Internet ere barne hartzen ditu eta, Txostenaren arabera, azken horiek legearen irismenetik kanpo geratzen dira.
- b) Bestalde, aurreproiektuan EAEko titulartasun publikoko hedabideentzako betebeharrak hau aipatzen da: «*beren informazio- eta publizitate-tarteetan lege honen helburuei erantzuten dieten kanpainak zabaltzea ahalbidetuko eta bultzatuko dute*» (20.3 art.). Bada, Txostenaren arabera, betebeharrak hori EITBrekin sinatutako programa-kontratuaren barruan kokatu behar da, EAEko ikus-entzunezko hedabideei dagokionez, EITB Media SAUren bidez kudeatzen baitira. Izan ere, programa-kontratua da EAEko aurrekontu orokorretatik ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoa emateko finantzaketa antolatzeke erabiltzen den tresna.
- c) Adierazten da «informazio- eta publizitate-tarteetan» «informazioa eta kanpainak zabaltzea» aipatzen duen xedapenak (20.3 art.) informazio-jardueran bidegabe esku hartzea dakarrela eta jarduera horrek, manuaren xedea gorabehera, legearen aginduetatik kanpo geratu beharko lukeela. Publizitate-jarduerari dagokionez, adierazten da zerbitzua ematen duen erakundearen jardura

pribatuaren esparruan kokatu behar dela eta, ondorioz, dagokion lege-, merkataritza- eta tributu-trafikoaren menpe egon behar duela.

- d) Uste da ohar horiek, programa-kontratuaren aipamena izan ezik, «udalen titulartasun publikoko hedabide»ei ere aplikatu dakizkiekeela.
- e) Artikuluaren laugarren apartatua ezabatzeko eskatzen da, baina arrazoitu gabe.

C.15 oharrerako erantzuna. Hedabideak lankidetzako eta elkartasuneko eragileak dira, haien izaera juridikoa eta zabaltzeko erabiltzen duten euskarria edozein direla ere.

Gainera, artikulua ez dagokio EAEko administrazio publikoari bakarrik, EITB erakunde publikoarekin, baizik eta lankidetzako eta elkartasuneko eragile guztiek egindako komunikazioari, informatzeko, sentsibilizatzeko, herritartasun kritikoa sustatzeko eta balio solidarioak bultzatzeko tresna gisa.

Ondorioz, organo sustatzaileari bidezkoa iruditzen zaio artikuluaren idazkera bere horretan uztea, baina ñabardura hauek sartuta:

«20 artikulua. Komunikazioa

1.– Euskal sektore publikoak, bere eskumenen esparruan, hedabide **publiko eta pribatuekin** eta beste lankidetzako-eragileekin elkarlanean, elkartasun-balioak eta herritarren jokabide- eta portaera-aldaketa bultzatuko dituzte, gizarte bidezkoagoak, zuzenagoak eta inklusiboagoak sustatzeko.

2.– Euskal lankidetzako-eragileek, batez ere hedabide publikoek eta pribatuek, saihestu egingo dituzte irudi estereotipatuak edo iraingarriak, eta errespetatu egingo dituzte Hegoaldeko herri, **herrialde** eta lurraldeen duintasuna eta autonomia.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko hedabideek ~~beren informazio- eta publizitate-tarteetan~~ lege honen helburuei erantzuten dieten kanpainak zabaltzea ahalbidetuko eta bultzatuko dute. Horretarako, erakundeen arteko lankidetzarako mekanismo edo akordio egokiak ezar daitezke.

4.– Euskal sektore publikoko entitate instrumentalek aurreko lerroaldean adierazitako kanpainak zabaltzea ematen lagunduko dute, publizitateari emandako tarteak lagata.

5.– Giza eskubideak sustatzen eta eskubide horiek aldeztu dituzten pertsonak, komunitateak, erakundeak eta sareak babesten laguntzeko, euskal administrazio publikoek komunikazio, posizionamendu publiko eta eragineko jarduerak egin ahal izango dituzte».

D) Antolaketarekin lotutako alderdiak eta Administrazio Orokorren eta administrazio instituzionalaren ekonomian eta aurrekontuan duen eragina.

Antolaketarekin lotutako alderdiei dagokienez, Txostenean ondorioztatzen da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 1. eta 3. artikulua aldatu eta 4. artikulua ezabatuko direla eta horrek, nagusiki, agentziaren izena aldatzea eta haren funtzioak birdefinitzea dakarrela.

D.1. Antolaketarekin lotutako alderdiei buruzko ohar hauek egin dira:

D.1.1 oharra, aurreproiektuaren 9. artikulua idazkerari buruzkoa. Artikulu horretan, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari esleituko zaizkion eta 5/2008 Legearen 3. artikulua aldatuko duten funtzioak biltzen dira.

- a) Prozesuko ekonomiarekin lotutako arazoak emanda, gomendatzen da 9. artikuluan zehaztutako funtzioak ez errepikatzea aurreproiektuaren azken xedapenetatik lehenean.
- b) Proposatzen da 9.d) artikulua beste era batean idaztea, eLankidetzaren eskumena dela-eta (zeina orain 5/2008 Legearen 3.1 artikuluan zehaztuta baitago eta aurreproiektuaren azken xedapenetatik lehenaren 2. apartatuan aldatzen baita): *«EAEko sektore publikoko sail eta erakundeei laguntza ematea lankidetzaren eta elkartasunaren ikuspegia txerta dezaten beren jarduketareman egindako ekimenetan»*.
- c) Txostenean adierazten da eLankidetzaren jarduketaren ebaluazioak, zeina aurreproiektuan 9.e) artikuluan aipatzen baita, bat etorri behar duela Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen IV. tituluaren II. kapituluaren xedatutakoaren.
- d) Txostenean iradokitzen da 9.f) artikuluari «aplikatu behar zaien araudiaren arabera» adierazpena gehitzea.
- e) 9.h) artikuluari buruz, txostenean adierazten da «transferitu» terminoaren ordez «eman» terminoa erabili behar dela eta «beste funts publiko edo pribatu batzuk» adierazpena ezabatu behar dela, zehatza ez delako eta dirulaguntzen arloko araudiarekin bat ez datorrelako.
- f) Desegokitzat jotzen da 9.i) artikuluan eLankidetzari eman nahi zaion ahala, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko arauak garatzekoa. Gogorarazten da ezen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den aldetik, ahalak administrazio-ebazpenak ematera mugatzen direla eta horrelakoetan, ahal publikoak erabiltzea dakarrenez, zuzenbide publikoarekin bat etorritz jardun behar duela, xedapen orokorrak emateko gaitasunik eduki gabe.
- g) Sailaren txosten juridikoan 9.n) artikuluari buruz egindako oharra errepikatzen da, Lehendakaritza aipatu beharrean «... arloan eskumena daukan sail» esateari dagokionez.
- h) Sailaren txosten juridikoan p) apartatuari buruz egindako oharra errepikatzen da, kide anitzeko organoetan parte hartzeari dagokionez; izan ere, haien ustez, organo horiek arautzen dituzten arauak zehaztuko dute organo osoa.

D.1.1.a) oharrerako erantzuna. Oharrari jarraituz, kendu da 9. artikuluan eLankidetzari esleitutako funtzioen errepikapena azken xedapenetatik lehenaren hirugarren apartatutik. Hona hemen amaierako idazkera:

«3. – Beste idazkera bat eman zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 3. artikuluari, zeina lege honen 9.3 artikuluan jasota dagoen moduan geratu baita.

D.1.1.b) oharrerako erantzuna. Ez da egokitzat jotzen proposaturiko ordezeko idazkera: «lankidetzaren eta elkartasunaren ikuspegia txerta dezaten (...) ekimenetan»; izan ere, lankidetzak jarduketaren eremu bat da, ez ikuspegi bat. Jatorrizko idazkerari eutsi zaio.

D.1.1.c) oharrerako erantzuna. Hain zuzen ere, Txostenean aipatzen den moduan, euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek —eLankidetzaren barne— bat etorri beharko dute indarreko araudiak ebaluazioari buruz ezartzen duenarekin. Txostenean egindako oharra orogarriztat jotzen da, baina ez dakar aldaketarik hizpide dugun artikulua idazkeran.

D.1.1.d) oharrerako erantzuna. Ekarpena barne hartu da eta artikulua birformulatu da, 9.h artikuluan jasota zeuden laguntza eta dirulaguntzak «eskuratzeko eta kudeatzeko» ahalmenak gehituz. Proposatutako idazkeran, letra berean (f) sartu dira laguntzei eta dirulaguntzei buruzko ahalmen guztiak. Hauxe litzateke amaierako idazkera:

«(...)

f) *Lankidetzaren eta elkartasun-ekimenak identifikatu, formulatu eta gauzatzeko eta horien gaineko jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, aplikatu behar zaizkien araudiaren arabera, laguntzak eta dirulaguntzak eskuratu, iragarri, eman eta kudeatu ahal izango ditu, eta kontratuak, hitzarmenak edo bestelako elkarlan-tresnak, lankidetzaren akordioak eta izaera juridiko bertsua duten beste akordio batzuk egin ahal izango ditu».*

D.1.1.e) oharrerako erantzuna. Funtzio horren helburua da eLankidetzak alderdi hauetan parte hartu ahal izatea: i) C.11 oharrerako erantzunean aipatutako lankidetzaren eskuordetua, ii) 12. artikuluan aipatutako erakunde arteko lankidetzarako mekanismoak eta, orobat, iii) herritarrengandik edo erakunde pribatuetatik funtsak jaso ahal izatea —espedituean dagoen memoria ekonomikoan azaldu den moduan—.

Organo sustatzailearen ustez, Txostenaren oharra bidezkoa zen hasierako idazkeran «laguntzak eta dirulaguntzak» aipatzeari eta horrek nahasmendua sortu ahal izateari dagokionez. Behin aipamen hori kenduta, hauxe da artikulua amaierako idazkera:

«(...)

h) *Lege honen helburuak lortzeko funts publiko zein pribatuak lortu, kudeatu eta transferitzea».*

D.1.1.f) oharrerako erantzuna. Oharra kontuan hartu da eta, ondorioz, testua honela aldatu da:

«(...)

- i) *Arau-xedapenen garapena sustatzea eta lankidetzaren eta elkartasunaren arloko administrazio-ebazpenak ematea».*

D.1.1.g) oharrerako erantzuna. Ez da egin Txostenean proposaturiko aldaketa, memoria honetan C.6 oharrari emandako erantzunarekin bat etorriz.

D.1.1.h) oharrerako erantzuna. Organo sustatzailearen ustez —eta horrelaxe azaldu zuen memoria laburrean, zeinean sailaren txosten juridikoan horri dagokionez proposaturiko aldaketa ez egitea justifikatu baitzuen—, egia da artikularen p) letran aipatutako kide anitzeko organoen arau erregulatzailerik ezarri behar dutela haien osaera. Xedapen hori eLankidetzaren funtzio gisa ezartzean, helburua ez da organo horien osaera baldintzatzea, baizik eta xedatzea erakunde espezializatuaren funtzioetako bat dela beste politika sektorial batzuk hobetzen laguntzea, beharrendararen arabera. Hala ere, idazkera honela doitu da:

«(...)

- p) *Kide anitzeko edo sail arteko organoetan elkarlanean aritzea, **organo horien ustez** Hegoaldeko herrialdeetako eta lurraldeetako errealitateak ezagutzea ezinbestekoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko politikak diseinatu, egikaritu eta ebaluatzeko».*

9. artikuluan egindako beste aldaketa batzuk:

Txosteneko oharren ondorioz, batez ere eLankidetzaren atribuzio eskusiboei dagokienez, artikulua berrikusi da eta beharrezkotzat jo da 1. apartatua (eta, ondorioz, aurreproiektuaren azken xedapenetatik lehenean) aldaketa bat egitea. Arauaren xedea da hainbat politika sektorialetatik lankidetzako eta elkartasuneko jarduketak aitortu eta sustatzea; hortaz, lankidetzako eta elkartasuneko jarduketak ez dira eLankidetzarenak bakarrik. Aurrekoa bat dator erakundeari esleitutako funtzio berriei, hala nola EAEko sektore publikoko jarduketak eta politika sektorialak koherenteak izan daitezzen eta legearen helburuei ekarpena egin diezaieten laguntzeko, babesteko, elkarlanean aritzeko eta abarretarako funtzioekin.

Hona hemen amaierako idazkera:

«9 artikulua. eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia

1.– *eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzan lankidetzaren eta elkartasunaren arloko eskumenak dituen sailari atxikitako ente instituzional bat da. Ente hori arduratzen da lankidetzako eta elkartasuneko politikaren plangintza, koordinazioa, kudeaketa, betearazpena eta ebaluazioa **bultzatzeaz**, lege honen helburuak betetze aldera».*

(...) Azken xedapenetatik lehen. eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia

(...)

1.– Lege hau indarrean hasten denetik, indarreko araudiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia aipatzen duen bakoitzean eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia aipatzen ari dela ulertu beharko da.

2.– Beste idazkera bat eman zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 1. artikuluari, zeina honela idatzita geratu baita:

1 artikulua. Legearen xedea

Lege honen xedea da eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia sortzea eta arautzea. Ente hori arduratuko da lankidetzako eta elkartasuneko politikaren plangintza, koordinazioa, kudeaketa, betearazpena eta ebaluazioa bultzatzeaz, lege honen helburuak betetze aldera».

D.1.2 oharrak, aurreproiektuaren 11. artikulua idazkerari buruzkoak. Artikulu horrek Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua arautzen du, alegia, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 16. artikulua bidez sortutako eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren bidez (zeina urriaren 21eko 197/2014 Dekretuaren bitartez aldatu baitzen) garatutako organoa.

- a) Txostenean nabarmentzen da ezen, nahiz eta azalpen-memoriak kontseiluaren funtzioak berregituratzeko aukera justifikatu, espedientean ez dela inola ere aipatzen langile edo gastu berririk beharko den ala ez.
- b) Uste da legeak organoaren osaerari buruzko xedapenen bat jaso beharko lukeela, ondorengo erregelamendu bidezko garapen batera bideratu beharrean (aurreproiektuak 11.5 artikuluan aurreikusten duen moduan).
- c) Uste da «lege horren aurka ez doan guztian» adierazpenak, zeina aurreproiektuaren lehen xedapen iragankorrean erabiltzen baita, ziurgabetasun juridikoa sortzen duela eta saihestu behar dela.
- d) Ohartarazten da aurreproiektuak ez duela 158/2008 Dekretua aldatzen eta horrek inkoherentziak sortuko dituela legea onesten denetik Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua arautzeko erregelamendua garatzen den arte.

D.1.2.a) oharrerako erantzuna. Langile edo gastu berrien beharrik badagoen ala ez zehazteko analisi ekonomikoa espedientean dagoen memoria ekonomiko luzatuan egin da.

D.1.2.b) oharrerako erantzuna. Ez da egokia legeak aurreproiektuan jasotakoak baino xedapen zabalagoak edukitzea, irauteko bokazioa dela eta. Lege berriak argiro eta irmoki azaltzen du politikak eta haren tresnek testuinguru aldakorrera egokitzeko gai izan

behar dutela. Nazioarteko testuinguruak modu dinamikoan baldintzatzen ari dira politikan esku hartzen duten eragile eta erronka berriak eta, horregatik, organoaren osaera era iraunkorrean zehazteak organo horrek eta politika publikoak errealitate aldakorrera egokitzeko behar duten gaitasuna eragotzi eta zurruntasuna ekar dezake. Azkenik, nabarmendu behar da beste lege sektorial batzuek, hala nola Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak, orobat xedatzen dutela haien erregelamendu bidezko garapenek arautuko dutela organoen osaera.

D.1.2.c eta d) oharretarako erantzuna. Arauaren organo sustatzailearen ustez, lege berria onetsitakoan ahalik eta lasterren ekin beharko zaie arau-aldaketei —besteak beste, hizpide dugun organoa arautzeko dekretuari—. Hala ere, aldaketok argitaratu arteko aldi iragankorrean, xedatu behar da gaur egun indarrean dagoen araudia dela aplikatzekoa.

Idazketa hori bera duela gutxi erabili da Eusko Jaurlaritzak onetsitako beste arau batzuetan; horien artean lehen aipaturiko 2/2023 Legea eta dirulaguntzen araubidea arautzen duen legearen aurreproiektua daude.

Nolanahi ere, aurreproiektua arau berrienetan erabilitako formulekin harmonizatzeko asmoz, idazkera honela aldatu da:

«Lehen xedapen iragankorra. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua

1. *Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren erregelamendu-xedapena, 11. artikuluan aurreikusitakoa, eman arte, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretua (zeina urriaren 21eko 197/2014 Dekretuaren bitartez aldatu baitzen) aplikatu beharko da, lege honen aurka ez doazen alderdietan.*
2. *Lege hau indarrean hasten denetik, indarreko araudiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua aipatzen duen guztietan Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua aipatzen ari dela ulertuko da.*
3. *Behin Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragilean Erregistroa indargabetuta, eta Kontseiluaren arauketa berria onetsi arte, beste euskal lankidetz-eragile sozial batzuen sei ordezkariak, irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3.3.i) artikuluan aipatutakoak, osoko bilkurak onetsitako hautespen-sistemaren arabera aukeratuko dira.*

D.1.3 oharrak, aurreproiektuaren 13. artikulua idazkerari buruzkoak. Artikulu horrek Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea arautzen du eta oharrok D.2 apartatuan aipatutakoak errepikatzen dituzte.

D.1.3 oharretarako erantzuna. Apartatu honetako oharrei erantzuteko, organo sustatzailea aurreko apartatuan emandako azalpenei lotzen zaie. Nolanahi ere, eta testua harmonizatzeko asmoz, idazkera aldatu eta honela utzi da:

«Bigarren xedapen iragankorra. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea

1. *Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordearen erregelamendu-xedapena, 13. artikuluan aurreikusitakoa, eman arte, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen martxoaren 24ko 71/2009 Dekretua aplikatu beharko da, lege honen aurka ez doazen alderdietan.*
2. *Lege hau indarrean hasten denetik, indarreko araudiak Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea aipatzen duen guztietan Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea aipatzen ari dela ulertuko da.*

D.1.4 oharra, 10. artikuluari buruzkoak. Artikulu horretan, GJPK arautzen da eta 10.2 artikuluan Lehendakaritzari eginkizunak esleitzen zaizkio. Horri dagokionez, oharrek nabarmentzen dute memoria ekonomikoan ez dela zenbatetsi egungo eginkizunei gehitutakoek ekar dezaketen gastu gehigarria.

D.1.4 oharrerako erantzuna. Eginkizun berri horiek eduki dezaketen eraginaren analisi ekonomikoa memoria labur honekin batera doan memoria ekonomiko luzatuan egin da.

D.2. Ogasunarekin eta erregimen ekonomiko eta finantzarioarekin lotutako alderdien gaineko eragina

Txostenean aztertzen da zer eragin eduki dezakeen proiektuak Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan, hots, azaroaren 17ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan identifikatutakoetan.

Txostenean baieztatzen da Ekonomia eta Ogasun Saila —EAEko Administrazio Orokorreko laguntza eta dirulaguntza publikoen araubidea arautzeko eta gainbegiratzeko eskumena duena— EAEko dirulaguntzei buruzko legearen aurreproiektua izapidetzen ari dela orain. Ondorioztatzen da ez dagokiola beste sail bati eskumen-araubide hori aldatzen duten xedapenak sartzea bere araudian.

D.2.1 oharra. 16. artikulua 1. apartatuari dagokionez, Txostenean beharrezkotzat jotzen da, alde batetik, euskal sektore publikoaren kontzeptua birdefinitzea eta, beste aldetik, administrazio bakoitzaren eskumenak zehaztea, kontuan hartuta hizpide dugun legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri bakarrik ezar diezazkiokeela mandatu lotesleak.

D.2.2 oharra. 16. artikulua 2. apartatuari dagokionez, Txostenean adierazten da lankidetzaren eta elkartasunaren arloko dirulaguntza eta laguntzetarako xedapenak, zeinen artean ordainketei eta bermeei, justifikazio-sistemei eta itzulketei buruzkoak nabarmentzen baitira, badaudela xedatuta oro har dirulaguntzei buruzko egungo araudian. Ondorioz, aurreproiektuan sartzea bidezkoa ez dela uste da.

D.2.3 oharra. 16. artikulua 3. apartatuari dagokionez, zeinean pertsona juridikoek eLankidetzaren deialdietako laguntzen eta dirulaguntzen onuradun izateko bete behar dituzten betekizun zehatzak ezartzen baitira, Txostenean adierazten da ez dela egokia betekizun horiek oro har txertatzea; aitzitik, dirulaguntza bakoitzaren oinarriek dagokie

betekizunok ezartzea, egokitasunarekin lotutako irizpideen arabera. Gainera, honako hau adierazten da:

- a) «*Egoitza edo ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoan izango dute*» dioen eskakizunak diskriminazioa ekar dezake.
- b) Erakunde-talde bat lehiatzeko aukerari buruzko xedapenek ez dute errespetatzen DLOaren 11. artikulua edukia. Lege hori oinarrizkoa da eta, aipatutako artikulua arabera, «*taldeko kide guztiak dirulaguntzaren onuraduntzat joko dira era berean eta, beraz, araudiak horretarako xedatzen dituen betekizunak eta betebeharrak bete beharko dituzte*».

Ondorioz, txostenean idazkera hau proposatzen da 16. artikulurako:

«16.1. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez onetsiko ditu, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko eta ogasunaren arloko eskumenak dituzten sailek batera proposatuta, lankidetzarako eta elkartasunerako dirulaguntzak arautzen dituzten arau bereziak. Arauketa hori bat etorriko da dirulaguntzei buruzko araudi aplikagarriarekin, salbu eta publikotasunaren edo lehiaren printzipioak alde batera utzi behar badira eta emakida-araubidearen, ordainketaren, diruz lagundu daitezkeen gastuen, betearazteko eta justifikatzeko epeen, kontrolaren, itzulketen edo zehapenen beste alderdi batzuk salbuetsi behar badira, dirulaguntzak beren izaerarekin edo hartzaileekin bateraezinak diren heinean. Nazio Batuetako erakundeei dagokienez, akordioetan eta estatuak sinatutako nazioarteko tratatuetan legez ezartzen denaren arabera justifikatuko da gastua.

16.2. Itzulketen eta betearazi gabeko zenbatekoen prozeduretan ez da berandutze-interesik eskatuko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko dirulaguntza eta laguntzei dagokienez.

D.2.1 oharrerako erantzuna. Memoria laburrean, aurreko apartatuetan, beharrezko azalpenak eman dira «euskal sektore publiko» terminoaren erabilerari buruz eta administrazio bakoitzaren eskumenak zehaztu beharri buruz. Txostenean proposatzen denarekin bat etorritik, 16.1 xedapena kendu da aurreproiektutik. Lankidetzaren eta elkartasunerako tresnak elkarlanean diharduten herrialde eta herrien errealitateara egokitzea legearen berrikuspenean identifikatutako erronketako bat denez, administrazioen funtzio erkide gisa birformulatu da.

Honela geratu da idazkera:

7 artikulua. Euskal sektore publikoa lankidetzako eta elkartasuneko eragile

(...)

«f) Laguntzen eta dirulaguntzen prozedurak errazteko eta arintzeko prozesuetan aurrera egitea, jarduketak egiten diren lurralde eta herrialdeetako errealitateetara egokitzeko asmoz.

g) (...) bultzatzea (...).».

D.2.2 oharrerako erantzuna. Txostenean proposatutako idazkera onartu da.

Halaber, egokitzat jotzen da dirulaguntzen araubidea arautzeko legearen proiektua Legebiltzarrean izapidetzean kontu hori xedatzea, arauen artean egon daitezkeen kontraesanak saihesteko.

Txostenean proposatutako idazkerari ñabardura txiki hauek egin zaizkio:

- 16. artikulua izenburua aldatu da eta bertan zehaztu da aipatzen diren laguntzak eta dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin lotutakoak bakarrik direla.
- Nazio Batuetako erakundeetarako xedatutako salbuespenaren idazkera doitu da eta orain argiagoa da.
- «Legezko interesak» berariaz aipatu dira, berandutze-interesak bakarrik aipatu beharrean itzulketen prozeduretan, dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorri¹².

D.2.3 oharrerako erantzuna. Organo sustatzaileari beharrezkoa iruditzen zaio eLankidetzaren deialdietako laguntzen eta dirulaguntzen onuradun izateko betekizun zehatzak (16. artikulua 3. apartatua) mantentzea (pertsona juridikoentzat). eLankidetzaren deialdietako erakunde onuradunek bete behar dituzten betekizunak zehaztu beharra zabalki azalduta dago memoria laburrean. 1/2007 Legeak ez bezala, honek askotarikoagoak diren eragileei ematen die helburuei ekarpena egiteko aukera. Hala ere, irabazi-asmorik gabeko erakundeen ibilbidea funtsezkoa da politikaren izaera solidarioa bermatzeko (ikus sektore sozialaren alegazioak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren nahitaezko txostena).

«Egoitza edo ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dute» dioen eskakizunak diskriminazioa ekar dezakeelako usteari dagokionez, nabarmendu behar da Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzei buruz onetsitako arau gehienek xedatzen dutela onuradunek Euskadin sustraitutako erakundeak edo pertsonak izan behar dutela. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa indargabetu denez, ezinbestekoa da alderdi hori legean barne hartzea.

Azkenik, erakunde-talde bat lehiatzeko aukerari buruzko xedapena kendu da, Txostenean iradoki bezala.

Ondorioz, 16. artikulua honela idatzita geratu da:

«16 artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean laguntzak eta dirulaguntzak lankidetzaren eta elkartasun-arloan

1.– Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez onetsiko ditu, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko eta ondasunen arloko eskumenak dituzten sailek batera proposatuta, lankidetzarako eta elkartasunerako laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituzten arau bereziak. Arauketa hori bat

¹² Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua, eta Euskal Autonomi Elkarte Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1996 Dekretua.

etorriko da dirulaguntzei buruzko araudi aplikagarriarekin, salbu eta publikotasunaren edo lehiaren printzipioak alde batera utzi behar badira eta emakida-araubidearen, ordainketaren, diruz lagundu daitezkeen gastuen, betearazteko eta justifikatzeko epeen, kontrolaren, itzulketen edo zehapenen beste alderdi batzuk salbuetsi behar badira, dirulaguntzak beren izaerarekin edo hartzailleekin bateraezinak diren heinean.

Nazio Batuetako erakundeei dagokienez, aplikagarriak diren akordioetan eta estatuak sinatutako nazioarteko tratatuetan legez ezartzen denaren arabera justifikatuko da dirulaguntzen gastua.

2.– Itzulketen eta betearazi gabeko zenbatekoen prozeduretan ez da ez legezko interesik ez berandutze-interesik eskatuko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko laguntza eta dirulaguntzei dagokienez.

3.– eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren deialdietan laguntza eta dirulaguntzen onuradun izateko, pertsona juridikoek, aplikagarria den araudiak oro har eskatzen dituen betekizunak eta dagozkien oinarri arautzaileetan ezarritakoez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Izaera juridikoaren arabera dagokien erregistro publikoan inskribatuta egongo dira.*
- b) Egoitza edo ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoan izango dute eta funts publikoekin finantzatutako jarduerak kudeatzeko antolakuntza-egitura nahikoa izango dute.*
- c) Ez dute irabazi-asmorik izango, ekonomia sozial eta solidarioko entitateen kasuan izan ezik, baldin eta beren estatutuetan berariaz baztertzen badute kideen arteko mozkin-banaketa».*

D.3.- Ekonomian eta aurrekontuan duen eragina

Txostenean adierazten da espedienteari gehitutako memoria ekonomikoan ez dela sartu 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua gutxieneko edukia, EAEko aurrekontuko guztizko gastuaren % 0,7 lankidetzako eta elkartasuneko politikara bideratzeko helburu komuna bakarrik aipatu baita. Horri dagokionez, aipatu behar da espedienteari memoria ekonomikoaren bertsio luzatu bat erantsi zaiola.

D.3 oharrak, aurreproiektuaren 17. artikuluari («Finantzaketa» izenburua duenari) buruzkoak:

- a) Ez dago oharririk 17.1 artikuluari buruz.
- b) 17.2 artikuluari dagokionez, Txostenean azpimarratzen da «euskal sektore publiko» kontzeptua indarreko araudira egokitu behar dela eta ezabatzea proposatu da.
- c) 17.3 eta 17.4 artikuluei dagokienez, Txostenean azpimarratzen da idazkerak mandatu bat dakarrela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuei buruzko legeek ezarritako dutela gastuaren urteko

banaketa, ez beste arlo batzuetako lege sektorialek, indarrean dagoen aurrekontu-araubideko arauak betez. Honela birformatzea iradokitzen da:

«17.2. Estatuko gainerako erakundeekin batera errenta nazional gordinaren % 0,7 bideratzeko helburu komunean aurrera egiteko asmoz, EAEko Administrazioak urtero ezarriko ditu lankidetzara eta elkartasunera bideratutako ekarpenak, guztizko gastu ez-finantzarioaren % 0,7ra heltzeko 2030. urtean.

17.3. Horretarako, aurrekontuan lankidetzara eta elkartasuneko euskal politika publikora bideratutako baliabide ekonomikoak handitu ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoetatik eta estatuko eta nazioarteko erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetatik datozen ekarpenekin».

- d) Azkenik, 17.5 artikuluari dagokionez, Txostenean okertzat jotzen da xedapen hau: *«Dagokion aurrekontu-ekitaldian gauzatzen ez diren aurrekontu-kreditu esleituak, gainera, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako aurrekontu-sail baliokidean sartuko dira, osagarri»*. Apartatu hori ezabatzea iradokitzen da.

D.3 oharretarako erantzuna. Txostenean proposaturiko testua kontuan hartu da, Ekonomia eta Ogasun Sailarekin adostuta —hori baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurrekontuei buruzko legeak egiteko eskuduna—, eta aldaketa txiki batzuk egin dira. **Ondorioz, 17. artikulua honela idatzita geratu da:**

«17 artikulua. Finantzaketa

1.– *Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleituko dituzte euren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako funtzioak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak.*

2.– *EAEko eta Estatuko gainerako erakundeekin batera errenta nazional gordinaren % 0,7 bideratzeko helburu komunean aurrera egiteko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak urtero ezarriko ditu lankidetzara eta elkartasunera bideratutako ekarpenak, guztizko gastu ez-finantzarioaren % 0,7ra heltzeko 2030. urtean, urte anitzeko planen bidez finkatutako tarteko helburuekin.*

3.– *Horretarako, aurrekontuan lankidetzara eta elkartasuneko euskal politika publikora bideratutako baliabide ekonomikoak handitu ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoetatik eta estatuko eta nazioarteko erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetatik datozen ekarpenekin».*

D.4. Beste administrazio publiko batzuen, partikularren eta ekonomia orokorraren gaineko inpaktu ekonomikoa:

Txostenean adierazten da espedientean ez dela ezer aipatzen aurreproiektuak beste administrazio publiko batzuetan eduki dezakeen inpaktu ekonomikoari buruz. Iradokitzen da behin arloko eskumenen egitura argituta espedientean ekimenaren

inpaktu ekonomikoa zehaztu beharko dela eta argi eta garbi ondorioztatzen dela 17.1 artikulutik («*Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleituko dituzte euren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako funtzioak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak*»).

Enpresan izan dezakeen inpaktuari dagokionez, Txostenean txosten horren ondorioa baino ez da ekartzen: «*Arauk ez ditu inola ere aldatzen ez enpresak sortzeko prozedurak ez horretarako kudeaketak eta, halaber, ez du behar ez den izapiderik ezartzen aurreikusitako lankidetzak eta elkartasuneko jarduketetan parte hartzeko. Jarduera eta zerbitzu berririk aurreikusten ez denez eta horrelakorik sortuz gero dagokion erregelamendu bidezko garapena beharko litzatekeenez, uste da Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektuak ez duela eraginik enpresa pribatuentzat. Arestian azaldutakoan oinarrituta, ondoriozta daiteke proiektatutako araudiak ez diela eragiten Euskadiko enpresen eraketari, abiarazteari eta funtzionamenduari*».

D.4 oharretarako erantzuna. Memoria honetan lehenago azaldu den moduan, legeak ez du aurreikusten administrazio-maila bakoitzari eskumen-atribuzioa egitea. Ondorioz, ez da bidezkoa oharrean proposatutako analisi ekonomikoa egitea.

Ondorioa apartatuan egindako oharrei dagokienez, adierazi behar da memoria honetan jada eman dela haien kontu.

7. ONDORIOA

Egindako izapideen esparruan egindako ekarpenen azterketa ikusita (aurreko epigrafeetan zehazten dira), «Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen» aurreproiektuaren testu juridikoan egindako aldaketek lege-aurreproiektuaren **bosgarren** bertsioari leku eman diote.

Bertsio hori Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari (ABJri) bidali zaio bere irizpena eman dezan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoa betez.

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY

GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARIA

Elektronikoki Sinatua: